



ARGIA

IKER ALVAREZ, ITZULTZAILEA:
"JAPONIAN BAKARDADEA
ARAZO NAZIONALA DA"

AINARA LEGARDON
SGAE-REN DEKADENTZIAZ

UMEEI MIGRAZIO DOLUAN
LAGUNTZEN DIETEN GAZTEAK

NEKAZARI TXIKIEN DEIA: KONTRAERASORA

LA VIA CAMPESINAREN NAZIOARTEKO KONFERENTZIA EUSKAL HERRIAN



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Erraustegiek kiebrara eramandako udalerrriak

IRITZIAK

- 17 Aiala Elorrieta
- 18 Zigor Etxeburua Urbizu
- 19 Eric Dicharry
Edu Zelaia



Azken hauteskundeek Euskal Herrian utzitako emaitzez mintzatu gara EH Bai hautagaitzako Peio Etxeberri Aintziartekin (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 20 Jakes Bortairu
- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
ROSA BINIMELIS
- 54 BERANDUEGI

SAKONEAN

- 12 | Iker Alvarez, itzultzailea: "Japonian bakardadea arazo nazionala dela esango nuke" / Reyes Ilintxeta
- 22 | La Via Campesinaren Nazioarteko Biltzarra: Munduko nekazari txikiek Euskal Herrian dute hitzordua / Unai Brea
- 27 | Peio Etxeberri Aintziart: "Azken mohikanoen sindromea kausitzen dut hainbat abertzalerengan" / Mikel Asurmendi
- 30 | Urretxindorra proiektua: Gazteak ume migrantei bidea errazten / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 32 | Hedd Wyn, gerrak isildutako poeta galestarra / Dabi Piedra
- 34 | Rafael Gonzales (Standing Rock): "BBVA bezalako bankuek eskuak zikinduta dituzte" / Lukas Barandiaran San Roman
- 42 | Ainara LeGardon, SGAeren monopolioaren amaieraz / Xalba Ramirez
- 45 | Chocolate Remix: "Orain, festa feminista gehienetan dantzatzeko da reggaetoia" / Danele Sarriugarte Mochales

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Aier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Xalba Ramirez.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industriadale, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdia: Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzat harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginaz, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).

Ongi etorri infernura

Hala zioten asteburuan Hanburgon nazioarteko 20 potentzia nagusietako buruzagiek egin duten bilkuraren aurkakoei. Poliziaren ur-kainoiek ongietorria eman zieten hilaren 6an Europa osotik eta munduko txoko askotatik heldutako milaka lagun. Globalizazio kapitalistaren aurkako mugimenduaren sorreraren garaia ekarri ditu gogora Hanburgoko kontragailurrak; batetik, mobilizazio jendetsuak antolatzeaz gain –larunbatean 80.000 lagun– erresistentziarako grina erakutsi dutelako eta bestetik, Poliziaren errepresio mailagatik. Erruz egin dute “lan” 20.000 poliziek 20 lagun babesteko. *Hamburger Abendblatt* egunkariaren arabera, 130 milioi euroko kostu publikoa izan du kapitalismo globalaren bilerarik garrantzitsuenetakoak.

Argazkia: Alvaro Minguito · Testua: Axier Lopez





Sanferminak 2017



"Maria Solana Nafarroako Hezkuntza kontseilaria: 'Araua beteta eta udalaren gehiengoaren babesarekin jarri zuten ikurrina; ni ere horren alde'"

@fm983irratia



"Gaua eta kaleak gureak direlako... Autodefentsa feminista! Ez beti da ez. Eraso sexistei stop!"

@ideiazabaldur



"Gaurko egunez poliziak German Rodriguez hil zuen. Oraino ez egirik, ez justiziarik, ez ordainik. 39 urte..."

@ikertb



"Zubi dantza egin dute Lesakan, aurten ez da emakumezkorik egon baina datorren urterako espero dira"

@HamaikaTb



EUSKO JAURLARITZA

Euskal Herri osoan euskara sustatzeko hitzarmena

Argia

Ana Ollok eta Bingen Zupiriak, hurrenez hurren Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzako sailburuek, eta Mathieu Bierge Iparraldeko Euskararen Bulego Publikoko presidenteak hiru lurraldeetarako lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Dokumentuak ez du ekarriko inolako betebeharrak ekonomikorik, eta lankidetzaren teknikorik bost esparru ezartzen ditu. Helduendako euskararen hezkuntza eta irakaskuntzari dagokionez, irakasleen eta ikasleen mugikortasuna sustatuko ditu. Hala, Ipar Euskal Herrian izan daitekeen euskal irakasle gabeziari aurre egiteko, Hegoaldeko irakasleak bideratu ahal izango dira, eta Iparraldeko 20 irakasle ere Hegoaldera joango dira.

Titulu bateratuak

Hiru lurraldeek hizkuntza-gaitasun mailak ebaluatzeko probak eta sistemak prestatuko dituzte. Hirurek emandako tituluak baliagarriak izango dira hiru lurraldeetan. Eskola-esparrutik kanpo, neska-mutilendako aisialdi-jarduerak eta trukeak sustatuko dira euskararen erabilera bultzatzeko.

Hitzarmenak euskararen sustapena eta hizkuntzari buruzko hausnarketa eremuak ere biltzen ditu, eta egindako ikerketa soziolinguistikoen barruan lortutako datuak bateratuko dituzte. Ekimen hauek finantzatzeko aldera, Europar Batasuna eta POCTEFA hizkuntza politikarako programen inguruan egin beharreko lana aipatu da. Hitzarmenak "gure hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko" balioko duela diote agintzariek.

"Ura moztu didate 278 euro zor nituelako"

MARIAMA

Ordainketan hiru hilabeteko atzerapena izateagatik moztu egin dio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak etxeko ur-korrontea adingabeko bi seme-alaba dituen Mariamari. Hiru hilabeteko atzerapena, zifretan esanda, 278,95 euro. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eten diote eta egoera latza bizi du. "Guinea-Bissegatik alde egin genuen, pobreziatik ihesi, eta pobrezian gaude hemen ere". Berri Otxoak taldeak salatu duenez, 2015ean 1.000 ur-mozte baino gehiago egin zituen Partzuergoak Bizkaian, eta 2016ko daturik ez diete eman nahi izan.

PUBLICO (2017-07-03)




A
ROLLING
STONE
GATERS
NO MOSS

A XULAR

LASARTEN
ANTZA
BAITHAN

MCMXCVI



Duela 21 URTE AGERTU ZEN
I AM PELLOT BIBA FESTA
albuma, ARGIAren eskutik

coppefoſtao

Egundaino historia eta istoria
auñitz izkiriatu izan da.

Ondo da noski frantsesek eta
espainolek Euskaldunotaz
dakiten gutiaz ohartzeko.

Ondo da Renoko irakasle,
eta turistendako ere.

Komiki honetakoa halabaina
ez duzu letra tipiz izkiriatzeko
den historia horietako bat...

Honako HAU, aurrekoak ez bezala
HISTORIA baita!!

ANITX TXINTXON (idorra) kolektib
Koxemari LARRAek zuen zutik eza

Astez aste AGERTZEN ziren lau orrialde aldizkarian,
orduko EUSKADIKO kutxaren diru-laguntzaz; harik eta
bi ERREZETA eman genituen arte:



PORKULINARI ZENTERRA! KUTXAK ATZERA
EGIN ZUEN, ETA 33. ORRITIK AITZINERA ez da haren
logoa AGERTZEN...

ETA TATI XOXAK!

Harenbestez, lana ez zen pagatua
baina ARGIAK ez zuen dudarik egir
eta bururaino eramán genuen xedez



GUAIXE

Altsasu eta "ETAren izpiritua"

Xabier Letona

@xletona

Altsasuko gazteen zigor eskaerarekin, Madrilen ETAren izpiritua sortu nahi dutela dirudi, lehengo "dena da ETA"-ren orde; aurrera begira zer zigortu eduki ahal izateko eta, jakina, izpiritu hori nahieran interpretatzeko ahalmenarekin. Iraganak ematen du horretarako aukerarik, Auzitegi Nazionalak hor jarraitzen du eta jihadismoaren aurkako borrokak eskaintzen du horretarako tresna egokirik.

Euskal Herrian oso ohituta gaude Auzitegi Nazionalaren zigor gogorretara. ETak oso gogor egin zuen Espainiako Estatuko egitura askoren aurka –baita egitura ez zirenen aurka ere– eta Estatuak gupida gabe erantzun zuen alor askotan, besteak beste judizialean, Auzitegi Nazionala sortuz eta Euskal Herriarentzako zigor esparru berezia ezarriz.

ETA desagertzekotan da, Auzitegi Nazionala ez, eta dena da ETA hartatik, ETAren izpiritua zigortzera egiten da. Funtsean, Auzitegi Gorenak auzia terrorismoztat jotzea baldin bada zigorrerako markoa, fiskaltzak hari bat darabil iragana eta oraina lotzeko, eta etorkizunerako proiektzioa ere baduena: guardia zibilen aurkako eraso planifikatua zegoen Ospa Mugimenduaren kanpai-

naren barruan eta honek bat egiten du ETak Guardia Zibila Euskal Herritik ateratzeko estrategiarekin, "Alde hemendik" ospetsua ETak 1976tik bultzatzen duen zerbait baita.

Tesi hori gailentzen bada, Guardia Zibila Euskal Herritik ateratzeko eta harekiko arbuio jarduerak terrorismoaren testuinguruan koka ahal izango dira. "Que se vayan" ospetsua, ordea, euskal gizartearen barren-barrenetik ateratako aldarrikapena zen, ETak ere bere egin zuena, eta ETA desegin ondoren ere egongo dena. Orain, gerra justiziaren testuinguruan, gazte hauek zigortzeko aitzakia bihurtu da. Nola ulertu bestela kolpe ugari, ezpainetako zauri bat eta orkatila apurketa bati 375 urteko espetxe zigorrarekin erantzutea? Ezin da.

Izugarri injustua da. Ez da egongo horrelako eskaera basatirik Espainiako justiziaren esparruan, baina nola erakutsi hori euskal eta espainiar gizarteet? Gazteen gurasoak eta laguntzen dituzten gizarte eragile guztiak izango dira hori erakusteko ahaleginaren buruan, Nafarroako instituzioen sostengua ere izan dute bide horretan. Nafarroako espainiar judikatura bera ere saiatu zen auzia zegokion ubidera eramaten. Baina ezer ez da nahikoa izan. Zer gehiago behar ote da?

EKONOMIAREN TALAIAN

Krisiak oraindik ez du hondoa jo



Juan Mari Arregi

Agintari estatalak eta autonomikoak pozarren daude langabezia-tasa beherantz doalako, ekaineko datuen arabera. Zehazki, Hego Euskal Herrian %12,64 da tasa hori eta denera 167.207 langabetu zeuden hilabete horretan. Aurreko urtean baino 17.000 gutxiago. Baina esaten ez dutena da enpleguak behin-behinekoa eta prekarioa izaten segitzen duela. Ekainean sinaturiko 129.008 kontratuetatik ia denak, %93,5, behin-behinekoak izan dira; eta horietatik erdiek 30 egun baino gutxiagoko iraupena zuten.

Badaude beste gertaera larri eta kezagarri batzuk sumatzeko krisia hor dela oraindik. Joan den astean Hego Euskal Herrian industria instalazio garrantzitsuak dituzten hainbat markak plan laggarriak iragarri zituzten euren kostuak, eta beraz lantaldeak, murrizteko. Etxetresna elektrikoak egiten dituen CNA taldeak, garai bateko Fagor erosi ondoren, 350 langile ditu Euskal Herrian eta aurre-konkurtsoa aurkeztu du, 100 milioi euroko zorrari aurre ezin eginik ordainketak etete. Hartzekodunek murrizketa horiek exijitzen dituzte eta bistan denez langile kopuruari eragingo dio egoerak. General Electric-ek Ortuellako bere filiala itxiko du, 147 lagun kalean utzi eta produkzioa India eta Txinara eramateko. Xey altzari enpresak ere 170 enplegu jarri ditu kinkan, Zumaiaiko lantegiaren itxiera iragarri baitu. Tubacex eta Tubos Reunidos, bestetik, birmoldaketa eta langile murrizketa betean aurkitzen dira... Zeinek dio krisiaren okerrenera pasa dela?

Egungo sistema kapitalistak eskaintzen diguna enplegu prekarioa eta behin-behinekoa da. Gazteek, testuinguru horretan, ez dute etorkizunik eta baldintzarik euren bizi-proiektuetan pentsatu ere egiteko. Migratzera behartuta daude. Handia da euskal botere publikoek duten ardura.



GOIENA.EUS

Rikardo Arregi Sariak

ANDOAIN. Andoaingo Udalak deitzen dituen Rikardo Arregi kazetaritza sariak banatu dituzte. Sari nagusia Goiena Telebistaren *Kulturriketak* telebista saioak jaso du (Txomin Madina, Monika Montero, Andoni Bodes eta Mikel Ezkerro lantaldeak egiten duena) eta aipamen berezia berriz, *Kixoteneak* erreportaje ilustratuen liburuak (Iñigo Astiz kazetari eta Maite Mutuberria ilustratzailearena). Aipamen berezia egin diete, urteurrenak medio, Noticias taldearen *Ortzadar* gehigarriari eta *Eguna* euskarazko lehen egunkariari.

Gazte Udaleku Feministak lehen aldiz

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Irailaren 1etik 4ra Ozaetan (Araba) egingo dituzte udalekuak. 100 lagunentzako dago lekua eta izena emateko epea uztailaren 28ra arte dago zabalik gazteudalekufeministak.eus webgunean.

Neska feministentzat

Udalekua nori zuzendua den argi adierazi dute: neska gazte feministak batzea dute helburu, "garrantzitsua delako bai botere helduaren eta bai botere patriarkalaren aurrean guretzako segurua izango den espazioa sortzea".

Autoantolaketa

Udalekuko kide guztiek antolaketa parte-hartze aktiboa izango dute, bai egi-tarauaren diseinuan, bai ekimenen antolakuntzan edo edukiak adostekoan. Une formalei eta informalei garrantzia emango diete.

Gazte mugimendutik

"Eraikuntza lanean ari gara" dinamikan sortu zen ideia, eta irailetik neska gazteek osatutako lantalde bat aritu da, oinarritzko proposamena lantzen. Udalekuak mugimendu feministarekiko ez direla "burbuila isolatu bat izango" diote.

PLASTIKOA



%7

baino ez da birziklatzen, Europan urtean erabiltzen diren plastikozko 100.000 milioi poltsetatik. Greenpeacek dio 8.000 milioi ingurune naturaletan galtzen direla.

175

dira batez beste europar bakoitzak urtean erabiltzen dituen plastikozko erabilera bakarrek poltsak.



RIF, PROTESTAN

Mouxine Fikri gaztearen heriotzaren ondotik amazigh eta bereberek hasitako protestek zortzi hilabete egin dituzte. Milaka polizia eta militar atera ditu Marokok kalera, baina ez dute lortu oraingoz herritarren manifestazioak geldiaraztea. "Herri baten identitatea dago jokoan", diote mobilizatuek.



'OSAGAIZ'

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundearen eta Udako Euskal Unibertsitatearen arteko elkarlanetik sortu da *Osagaiz*, osasun-zientzien inguruko euskarazko aldizkari digital berria.



ERREFERENDUMA

Junts pel Sí eta CUP taldeek urriaren 1eko autodeterminazio erreferenduma arautuko duen legea aurkeztu dute. Berarekiko kontraesanean legokeen beste edozein araura gainetik eta indarrean egongo da galdeketa enaitzak publiko egin arte.

Harrisburg eta Detroit, bi udalerri erraustegiak kiebrara eramanean



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

AEBetako hiri handietako alkateek erabaki dute zaborrak erraustetik lortutako energia ez dela berriztagarria. Erraustegiak aspalditik ezagutzen baitituzte AEBetan, udal agintariak ohartuak dira labe erraldoiok zaborrekin batera herritarren zergak ere kiskaltzen dituztela urte luzeetarako, ondorengoei utziz kutsadura eta eskoriekin batera diru zor itzelak, Harrisburg eta Detroiteko jendeek ondo dakiten moduan.



Ekainean burututako 85. Biltzarrean AEBetako auzapezen elkarteak, 30.000 biztanle baino gehiagoko udaletako alkateak biltzen dituenak, energia berriztagarrien zerrendatik kanpo utzi du hondakinen errausketa.

Donald Trumpek abian jarri duenean Barack Obamaren garaian energia berriztagarrien alde ezarritako neurriak mozteko bidea, AEBetako alkateen elkarteak atera zaio erdira, berresteko 2035erako lortu nahi dutela energia kontsumoaren %100 berriztagarri izatea. Errauste planten lobbya izan da alkateen arteko adostasuna lehertzen saiatu den erakundeetako bat, haserre udalek ez dutelako zaborren errausketa berriztagarritzat jotzen, *Huffington Post*-ek kontatu duenez.

Ekologistak pozarren daude eta erraustegiaren kontrako taldeak ere bai. PFPI Politikaren Gardentasunaren aldeko Elkartasunako Mary Boothek esan du: "Erraustegiek energia ekoizteko plastikoak eta beste material kutsagarriak erre beharra dauzkate eta orduko-megawat bakoitzeko gehiago kutsatzen dute ikatzeko zentralak baino. Errausketa teknologia zikina da eta ez du merezi energia berriztagarritzat har dezaten". Baina horregatik bakarrik egin diote aurre lobbyari hiri handietako alkateek? Ziurrenik erraustegien diru kontuekin eduki duten esperientzia gaiztoak ere izan du zerikusirik. Bat baino gehiago baitira azken hamarkadotan zaborren errausketak hondamen-

dira eramane dituen udalerriak. Harrisburg eta Detroit aipatzen dira, nagusiki.

Pennsylvaniako hiriburu Harrisburg (50.000 biztanle) munduan ezaguna da Three Mile Islandeko zentral nuklearrak 1979an izandako istripu larriagatik. Energia atomikoaren segurtasuna zalantzan jarri zuen istripu hark, Jack Lemon eta Jane Fondaren *Txinako sindromea* filmari ateak ireki zionak, lurrikara eragin zuen munduan. Askok ohar-kabeagoan pasatu zen 2011ko lurrikara, hiria hankaz gora jarri zuena: urriaren kiebrea deklaratu zuen alkateak udalaren zorrei eta hartzekodunen presioari eusteko epaileen laguntza eskatzeko.

1972an abian jarria, AEBetako lehenengotako erraustegiak hasieran 15 milioi dolar kostatu behar bazuen laster joan zen garestitzen ia 100 milioitako gastuak eragin arte. 2000 urterako zaharberritu baten beharrean zegoen, Washingtonen agintariak kutsaduragatik ixterik nahi ez bazuten. Udalak arazo larria zeukan, erraustegiak urtetan pila-tutako 100 milioitako zorrei aurre egin eta aldi berean planta zaharberritzeko sosak bildu behar.

Stephen Reed alkatearen zorionerako –hala uste zuen– errausketan negozioa egin nahi zuen Barlow Projects konpainia txikiarekin egin zuen topo. Honen proiektua arazo guztien soluzioa izango zelakoan, 2003an lotu zuten 125 milioiko kreditu berria. Baina kontratistak ez zuten lortzen lana osatzerik eta 2007an erraustegiaren ustiatzea Covanta kon-

painia erraldoiari eman zion udalak, mundu osoan erraustegiak dauzkanari. 2007an 60 milioi dolar gehiagoko maillegua. Badoaz...

2009an galdu zuen alkatetza Stephen Reedek 30 urtez Harrisburgeko jabe izan ostean. 2012an auzitegiaren aginduz udalaren auditoria eginda, perituek ebatzi zuten legeak baimentzen duena baino askoz gehiago zorpetu zuela Reedek udalerria. 2013an udal berriak onartu behar izan zuen kiebra kudeatzeko Washingtonen agintariak ezarritako neurri paketea, tartean erraustegia saltzea, herritarrei zergak igotzea eta udalaren ondasun haboro saltzea.

Diru errausketa itzela

Alkatetzatik epaitegietara, 2015ean fiskalak erabaki zuen Harrisburgeko eskandaluan erraustegia zela arazo nagusia eta alkate ohia auziperatzea eskatu zuen lapurretara, ustelkeria eta frogen desagerraraztea egotziz. Epaileak delituetako batzuk iraungitzat jo zituen, ez ordea diru publikoen lapurretarena eta 2017ean Stephen Reed bi urteko espetxe zigorrera kondenatu zuen.

Detroit da erraustegiak hondamendirako eramandako hirietako beste bat. ARGIAk kontatu izan ditu Detroiten maulurrak, autogintzak oparotasunaren zeruetara jasotako Detroit nola erori den langabezia, txirotasun eta miseriaren amildegiraino. Ez da hain ezaguna kiebrara eramane zuten arazoetako bat bere erraustegia izan zela.



Pennsylvaniaiko 'Penn Live' hedabideetik hartutako argazkia 2007koa da: artean Harrisburgeko alkate zen Stephen Reed erraustegia zaharbertitzeko hurrengo kreditua sinatzera doanean, atarian herritar talde bat dauka zain, protestan daramatzaten afixek diotelarik "Ez asmakizun gehiago" eta "Gure dirua erretzen". 2009an alkatetza galdurik, 2017 honetan, urtarrilean, epaileek bi urteko espetxe zigorra ezarri diote erraustegiarekin egindako ustelkeria eta lapurretagekin.

1986an eraiki zutenean labe handiak izan behar zuen Detroit biziberritzeko gakoetako bat, orduan puntako teknologiatzat zeukatenak enpresa berri ugari erakarri behar omen zituelako errestan. Evergreen elkarte ekologistako ekin-tzaileek ez zuten lortu beren protestekin geldiarazterik munduko erraustegirik handienetakoa.

Laster ikusi zen energia garbiarena gezurra zela. Hasteko, kiratsa, hasieran bezala oraindik gaur ere kexu askoren iturri dena, *The Guardian* bezalako egunkariak ere kontatua dutena. Baina herritarrek haserrarazten dituen usain txarraz gain, kutsadura larri baten iturri ere da: nitrogeno oxidoa, dioxido sulfurikoa, karbono monoxidoa, beruna... Michigan estatuko kutsatzaile nagusietakoa bilakatu zen erraustegia. Herritarren eta batez ere haurren artean uga-

ritzen ari ziren gaixotasunen albisteak zabaldu ziren. Michiganeko Ingurumen Babeserako Agentziak espedienteak ireki dizkio Detroit Renewable Energy konpainiari.

Eufemismoak erruz baitarabiltza industriarik kutsatzaileenak, konpainiaren filialak deitzen dira Detroit Thermal, Detroit Renewable Power, Detroit Renewable Cooling... Denak dira mundu osoan zabalduetako Atlas Holdings konpainiaren adar. Konplexurik gabe aldarrikatzen du kiebra jotako enpresetan inbertitzea dela bere negozioa.

Baina kutsaduraz gain, erraustegia bihurtu zen Detroiteko udalaren finantzen zulo estali ezina. Sekula ez du sortu agindutako etekinik, ez hasieran eta ez gero ere. Ireki eta berehala, 1991n, inbertsore pribatuei saldu behar izan zien udalak, baina dagoeneko munizipala

ez izan arren herritarrek jarraitu behar izan zuten haren zorraren bonoak ordaintzen. Denetara, Detroit Zero Waste elkartearen kalkuluetan, detroitarrak 1.200 milioi dolar pagatu dituzte.

Detroiteko erraustegiaren arazoetako bat da handiegia dela. Horregatik Detroiten erre beharra dauka beste hirietatik ekarritako zaborra martxan jarraitu ahal izateko. Zorrak iraun zuen azken urteetan –ordainketak 2009an amaitu ziren– kanpotik hondakinak zekartzatenean tonako 13 dolar pagatzen zuten, baina Detroiteko herritarrena tonako 150 dolarretan ateratzen zen.

Ez da harritzekoa AEBetako alkateen elkarteak ez onartzea errausketa energia berriztagarrien artean. Bizkaiak daukan zorrak eta Gipuzkoak oraintxe bereganatu dituenak zein amildegitarera eramaten duten ondo ikasia dute. ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Iker Alvarez, itzultzailea

«Japonian bakardadea arazo nazionala dela esango nuke»

Burua makurtuz agurtu gaitu Iker Alvarez itzultzaile Japonia zaleak. Elkarriketak aurrera egin ahala gero eta urratuagoak ditu begiak edo nire irudipena izan ote da?



Reyes Ilintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hitzek beti erakarri zaituzte?

Gaztetan musikaria izan nahi nuen. Gitarra elektrikoa jotzen nuen eta hori zen gehien gustatzen zitzaidana, baina zain-tiratu sendagaitz baten ondorioz utzi behar izan nuen. Nire familia giroa erdalduna izan arren, txikitatik euskaraz ikasi izan dut. Errebeldiatatik edo norbanako gisa agertzeko nire modua zen euskarari, nolabait, aurre egitea. Aldiz, unibertsitatera iritsi nintzenean ohar-tu nintzen Iruñean euskaraz egitea eta euskaldun izatea dela kolokan dagoena, eta horrek ikuspegia aldarazi zidan.

Ekonomia hasi nintzen ikasten Nafarroako Unibertsitate Publikoan, baina berehala utzi eta EHUra joan nintzen Filologia ikastera, euskarak erakarritu. Zenbait euskal testu zahar ezagutzeak zer pentsatua eman zidan. *Bereterre-txen khantoria* edo *Txori erresinula* bezalako testu ederrek eramanez ninduten pentsatzera kultura hori guztia gizatalde baten baitan sortu zela, eta gaur egun ez dagoela gizatalde horren oinordeko-rik gutaz besterik.

Japoniera ikasi duzu.

Lehenbizi Japoniarekin maitemindu nintzen eta gero hizkuntza iritsi zen. Japoniera ikasten 16 urterekin hasi nintzen. Nire kabuz. *Japonés en viñetas* metodo ezaguna ikusi eta horrekin hasi nintzen. Japoniarekiko nuen zaletasunak asko akuilatzen ninduen eta asko ikasi nuen.

Gero jakin nuen Iruñeko Hizkuntza Eskolan bazela aukera ikasteko eta han izan nintzen hiru urtez, bukatu ondoren nire kabuz jarraitu nuen.

Zaletasun hori nola hasi zen?

Jakin nahi nuke nik! Askotan galdetzen didate. Gogoan daukat txiki-txikitatik lilura puntu bat sentitu dudala Japoniako gauzekiko. Marrazki bizidunak, adibidez, oso bereziak ziren niretzat. Haien atzean zegoen kultura, gauzak egiteko modua. *Shin Chan*-en, esate baterako, ikusten ziren harreman motak, umorea... desberdinak ziren eta nolabait sentitu nuen nire izateko moduak bazuela antz gehiago horrekin nire in-

gurukoarekin baino, sentimendu hori handitu egin da aurrera egin ahala.

Zertan egiten duzu bat japoniar izaerarekin?

Japoniar bakoitza mundu bat da, baina badira ezaugarri batzuk nire izaerarekin oso bat datozenak. Harrema-

Iker Alvarez Castellanos

Iruñea, 1991

Itzultzailea eta filologoa, Japoniarekin eta japoniar izaerarekin maitemindua. Uda amaieran hara bizitzera joateko asmoa du. Hiru literatur lan ari da orain japonieratik itzultzen eta udaberrian kaleratu zuen Dylan Thomas (1914-1953) galestarraren poema bilduma Susa argitaletxearen Munduko Poesia Kaiarak bildumaren baitan. Euskalerrria Irratiko kolaboratzailea da.





nei dagokienez, haiek bezala, nik ere distantziak mantentzen ditut, isila naiz eta gustatzen zait besteei beren lekua ematea. Norbait ezagutu eta berehala ez naiz bere lagun min sentitzen. Distantzia mantentzen dut eta hori niretzat ez da txarra, horrek ahalbidetzen duelako denboran zerbait gehiago eraikitzea edo ez, baina beti errespetua mantenduz. Japoniar askok esan didate “ni baino japoniarragoa zara!”. Ez zait iruditzen Japonia hau baino leku hobe denik, baina hango kodeak, pertsonak komunikatzeko moduak, lan egiteko erak, nirekin bat datoz.

Zaila da han lagunak egitea?

Harremanak egitea ez da erraza, eta are bakardadea arazo nazionala dela esango nuke. Ez dakit gure “lagun” kontzeptua ere ba ote den. Japonian jende askok oso gaizki pasatzen du.

Eta pentsatzen dena bezain lan zaleak dira?

Esango nuke hemen legeak dioena dela garrantzitsua. Kontratu batean jartzeko duena betez gero, jada inork ez dio inori ezer zor. Ez dugu betebeharririk sentitzen lantaldean, bereizketa egiten baitugu gure eta enpresaren helburuen artean.

Japonia handia da eta desberdintasun zabalak dira, baina Tokio, Osaka edo Yokohama bezalako hiri handietan lanaren kontzeptzioa ezberdina da: bereizketa ez da hain argia norbanakoa eta enpresa-lantaldearen artean. Zu etxera joaten bazara besteak baino lehenago, besteek izanen dute lan gehiago. Zuk ez duzu lortuko diru gehiago ordu gehiago lan egiteagatik, seguruenik. Lana bukatu liteke nagusia edo arduraduna etxera joaten denean. Dena den 12 ordu lantokian egoteak ez

du esan nahi gogotik ari direla lanean denbora guztian. Halere, ez da pentsatu behar leku guztietan horrela denik. Gainera, Japonian lan kultura hori ez da hain tradizionala, nahiko gauza berria baizik. Berez japoniarrak nahiko mediterraneoarrak dira. Duela bi urte, Tokion egon eta gero, uda igaro nuen boluntario handik pixka bat hegoalde-
ra. Beste mundu bat da. Han berandu esnatzen ziren, ordutegiak ez zituzten betetzen, biltegia txerritoki bat egina zegoen... eta ni harrituta, hori guztia kontatu nien tokiotar asko bezala.

Hezkuntzak berebiziko garrantzia du?

Ekialdeko Asian oro har, eta agian konfuzionismoaren eraginarengatik, txiki-txikitatik baloratzen da sistematikotasuna. Piano-jotzaile bikaina izateko 5 urterekin hasi behar duzu eta egunero hainbat orduz jo. Eskolan berdin. Hiri

handietan, klaseak amaitutakoan etxeko lanak egin, eta horiek bukatu ondoren, klaseko onena izanda ere, gurasoek akademiara bidaliko zaituzte. Sarbide probak prestatzen aritzen dira beti instituturik edo unibertsitatetik onenera sartu ahal izateko. Konpetentzia oso handia da, beraz. Izan, badira sarbide probak baita Haur Hezkuntzan sartzeko ere.

Euskara eta japoniera arteko harremanik ikusten duzu?

Gutxi batzuek proposatzen dute aspaldian izan zela hizkuntza bat Europa eta Asian zabaldua zegoena eta euskara eta japoniera bere azkeneko adarrak direla. Ez dago justifikatzeko modurik. Gaur egun bi hizkuntzek zenbait gauza antzekoak dituzte: bokal kopurua, hitzek normalean bi silaba dauzkate, deklinabide sistema antzekoa... Egia da, oro har, japoniar batek euskaraz eta gaztelaniaz dakienean hobeki egiten duela euskaraz, bere ama hizkuntzaren gertuagokoa delako.

Espainiar Japoniera Oratoria lehiaketara aurkeztu zinen duela bi urte.

Oso esperientzia polita izan zen. Bakarrik joan nintzen Madrilera oso ongi jakin gabe zer-nolako lehiaketa zen hura. Ez zait kostatzen jendaurrean hitz egitea eta nahiko ongi atera zitzaidan. Hirugarren saria eman zidaten eta ni harrituta, lehiakideak Japonian luzeago egonak baitziren.

Zergatik hautatu duzu Dylan Thomasen poesia zure lehen itzulpen lana egiteko?

Dylan Thomas bohemioa zen, bere bizitza nahiko desastrea izan zen. Irakurtzen hasi nintzenetik liluratu ninduen lortzen zuen emaitza estetikoak. Ez

nekien ezer bere bizitzari buruz, baina bazuen gauzak irudikatzeko oso modu berezia eta hori beti gustatu izan zait. Pertsona ezagutu eta gero jakin dut sortzen zuen guztia bere buruaren jabe bakarra izateko asmoz egiten zuela. Bere ideiak, bere irudiak... bereak izatea nahi zuen, eta ez beste inorenak. Gustatzen zait halako pertsona batek olerki bikain horiek sortu izana. Arazoak zituen taldeekin identifikatzeko eta nik, nolabait, horrekin badaukat nolabaiteko antza. Antzeman nionean hurbilago sentitu nuen. Nik ere behar hori daukat nire kabuz aritzeko.

Niretzat eskola izugarria izan da. Bere poema baten aurrean jartzen zarenean gauza asko konpondu behar dituzu esanahi aldetik, erritmo aldetik, forma aldetik... Harrigarria da nola osatzen zituen poemak, baita nola irakurtzen zituen ere. Irakurri nionean bere poemak literalki irakurri behar direla, niretzat errealazio moduko bat izan zen. Thomasek burmuinera zuzenean botatzen dizu irudi multzo ikaragarria, denbora bat, isuri bat duena. Hori da poema bat.

Orduan, poema batez gozatzeko ez dugu derrigor ulertu behar?

Interpretatzeko ahalegina egin deza-kezu edo ez, demagun, koadro batekin bezala. Baina lehentasuna emango nioke poema "ikusteko" gaitasunari. Hori ere bada interpretatzeko modu bat, irudiak erakusten dizuna jasotzea. Jakina, irudiak ez dira ausazkoak, badute multzoan zentzu bat, eta beti dago azpiko maila horretan murgiltzea, baina nire ustez poesia da irudi pizte horretan suertatzen den sentsazioa.

Harmonia kolektiboa

"Japonian legea modu zurrunean errespetatu arren, badute beste printzipio bat are garrantzitsuagoa: denok batera egiten badugu, ongi dago nahiz eta legeak dioena ez izan. Lehen mailan jarrera soziala dago. Legeen gainetik taldearen dinamika dago. Harmonia kolektiboa ez da hautsi behar".

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA MASTERRA

UPV/EHU DONOSTIA

PLAZA LIBREK DITUGU

www.gezki.eus

UPV/EHUko Gaitasunak
Ekonomia eta Zuzenbideko
Kampusaren Institutua

GEZKI

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la Uffordia

ARGIAren buletin@

Orain gaika ere bai:
feminismoa, euskara,
herri mugimenduak,
kultura, ekonomia soziala...



Sartu eta aukeratu
zure informazioa:

www.argia.eus/buletinak

ARGIA



Azken hitza:

Japoniarren izaera

“Oso zaila egiten zaigu ulertzea japoniarrek gauzak adierazteko duten modua. Ez dute ezetz esaten argi eta garbi. Adibidez, joaten bazara banketxe batera txartel bat eskatzera mota guztietako aitzakiak aterako dizkizute: orain ez dagoela horretaz ardurtzen den pertsona, une horretan ezin dutela egin... saiatzen dira minik ez ematen, baina zuk ulertu behar duzu ezetz dela. Maila pertsonalean berdin. Dena den, garrantzitsua da Japoniaren ideia monolitikoa haustea. Tokio munduko hirigunerik handiena da, kasik 40 milioi biztanle ditu, izugarritziko indarra du, baina gainerako guztiak oso desberdina da”.

Zuk bi irakurketa horiek egin behar izan dituzu, orduan egin duzuna zer da birsortzea poema horiek?

Agian literatura guztia, baina bereziki poesia, birsortu behar da, bestela itzultzean galdu egiten da. Dylan Thomasek, adibidez, hitzak batzuetan aukeratzen zituen haien hotsarengatik. Sakrifikatzen zuen delako mezua soinuarengatik. Logika hori ez baduzu barneratzen egiten ari zarena zer da? Itzulpena ala originala irakurtzeko laguntza bat? Autoitultzaileek baimen ikaragarriak hartzen dituzte, baina testua zurea ez den kontu handiz hartu behar duzu. Horretarako saiatu nintzen bere poemagintza sakon aztertzen zuten testuak irakurtzen, lerroz lerro dena bere testuinguruan kokatzeko. Hori da itzulpen kritiko bat. Zera lortu behar nuen: bere horretan balioa duen poema bat, jatorrizko lana errespetatuz.

Nolako itzulpenak egiten dira Euskal Herrian?

Iruditzen zait euskal literaturan, agian txikia delako, beti gaudela hurrengo mugarriari begira, noiz izango dugun halako nobela euskaraz edo ez dakit zeinen lanak euskaraz... Badirudi prestigio bila gabiltzala testu onen bila baino gehiago, edo erdaldunei esan nahian halako liburu badugula euskaraz gaztelaniaz baino lehenago, eta abar.

Esan dezakegu badugula *Kixote* eus-

karaz eta Facebooken partekatu, zoragarri, baina irakurlea testura hurbildu eta goza dezan lortzea beste kontu bat da. Uste dut gehiago erreparatu behar ko geniokeela horri, zer dugun, eta ez horrenbeste mugarriari, non edo zenbat dugun. Ez naiz ari itzulpenen kalitateaz, baina garrantzitsuena da erabakitzea fokua non jartzen den: euskal lorpena ala literatur lorpena izatean.

Lorca itzultzeak zentzua du Hego Euskal Herrian?

Izan dezake. Borgesek esaten zuen originala ez dela itzulpenarekiko fidela izaten. Itzulpenak badu zerbait originalak ez duena. Adibidez, izaera aldetik elebidunak garenok desberdinak gara hizkuntza batean ala bestean. Ideiak adierazteko modu desberdinak ditugu eta ondorioz harreman desberdinak egiten ditugu hizkuntza bakoitzean, horregatik nahiz eta literatur lan bat jatorrizko hizkuntzan ulertu, euskaraz irakurtzean agian beste modu batez irakurriko dugu. Sortu liteke, esaterako, lelo politiko bat ustekabea, gaztelaniaz nekez eraginik izango lukeena gure artean.

Orain zertan ari zara?

Ahalik eta lasterren Japoniara joateko asmoa daukat. Uda pasatakoan. Joan baino lehen gustatuko litzaidake japonieratik egindako itzulpenen bat argita-

ratzea, lana errazago aurkitu ahal izateko. Badauzkat bi lan itzultita euskarara eta orain berrikuspen fasean daude. Eleberri laburrak dira. Honetaz gain japonierazko eleberri moderno baten lehen zatitxo ari naiz gaztelaniara itzultzen argitaletxeetara bidaltzeko.

Bitartean itzulpen teknikoak egiten ditut. Itzulpen literarioek prestigioa ematen dute baina bizimodua ateratzeko bestelakoak egin behar dira. Freelance moduan agiriak, patenteak, zientzia artikulua, gutunak... itzultzen ditut ingelesetik, eta batez ere japonieratik.

Zaila da Japoniara bizitzera joatea?

Orain arte ia ezinezkoa zen. Oso profesional berezia izan behar zenuen, zutaz arduratzen zen enpresa bat behar zenuen atzean edo ikasketak egiten aritu behar zenuen, baina orain bide berri bat zabaltzen ari da bertan urtebete lan egin ahal izateko. Hala ere, hori lortzeko demostratu behar duzu osasun ona duzula eta diruz gauza izanzen zurela zure kabuz bizitzeko, eta jakina, oso mugatuta dago bisa lortzen ahal dutenen kopurua. Hori da japoniarren beste ezaugarri bat: atzerritarrekiko mesfidantza. Mesfidantza adierazten dizute, baina oso aurpegi onez. Oso ongi tratatzen zaituzte, baina espero dute etorri bezala alde egitea. Haien zat harmonia kolektiboa zaintzea oso garrantzitsua da. ■

Sozialki errentagarri ez den trena

Ordubete pasa, denbora asko ala gutxi ote da? Bilbotik Donostiarako autobusak tardatzen duen denbora da hori. Ordubete pasa lanera iristeko, ordubete pasa kontzertu batera joateko, ordubete pasa laguna edo senidea ikustera joateko, ordubete pasa bilera batera garaiz –edo berandu– heltzeko. Autobusean eserita noala, lehengo batean AHTren inguruko Udako Ikastaroan entzundakoaz hausnartzeko aprobeztatu dut. Ordubete pasa era desordenatuan hartu nituen oharrak nire buruan antolatzeko. Horretan ere ziria sartu digute AHTren bultzatzaileek; hasieran promesten zen denbora aurrezkia erabat lausotu da. Azken estimazioek 55 minutuko bidaia aurreikusten dute.

Garraio gaietan adituak diren ekonomialariek AHTren errentagarritasun ezaz jardun zuten. Ekonomialariak diren arren errentagarritasunaz ari direnean, errentagarritasun sozialaz ari dira. Hau da, ekonomian “kanpokotasun” esaten dena kontuan hartzen dute: kutsadura, errepideak liberatzeko gaitasuna, denbora aurrezkia, istripu kopurua... Alderdi finantzarioari erreparatuz, AHTko linea gehienek kostuak estali gabe funtzionatzen dute. Gakoa beraz, finantzieroki errentagarri ez dena, sozialki errentagarria ba ote den baloratzean datza.

Espainiako Estatua liderra da biztanleko AHT eraikitako kilometrotan, baina bidaiari kopuruari erreparatzean kontrakoa gertatzen da: elite txiki batek baino ez du erabiltzen. Jende gehienak ohiko trenak erabiltzen ditu eskualdean zehar mugitzeko. Ikuspuntu honetatik, AHTren eraikuntzak bete-betean jotzen du ekitatearen aurka eta baliabideen birbanaketa handia izaten ari da gizartearen sektore pobreenetatik aberatse-



Aiala Elorrieta
EKONOMIALARIA

Gure agintari neoliberalak eta beraien komunikabideek etengabe jartzen dituzte zalantzan gizarte-politikak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBSE) deslegitimazio kanpaina ikustea besterik ez dago. Ez digute, ordea, enpresen iruzur fiskalaz hitz egiten eta ez digute argi esaten 2017ko aurrekontuetan AHTren eraikuntzarako DSBera bideratuko denaren hirukoitza gastatzea erabaki dutela. Bai, hirukoitza

netara. Gizarteko sektore aberatsentzat izango den trena ekitatiboa ez den zerga-bilketa bidez finantzatzen ari da. EAEn langile klaseek zuzeneko zergen %35,5 ordaintzen dute, kapital errentek ordaintzen dutenaren hirukoitza, hirukoitza.

Gainera, AHTren eraikuntzan xahutzen den euro bakoitza, beste esparru batera bideratzen ez den euroa ere bada: hezkuntzara, etxebizitza sozialerara edota ingurumena zaintzera bideratzen ez dena. Gure agintari neoliberalak eta beraien komunikabideek etengabe jartzen dituzte zalantzan gizarte-politikak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) deslegitimazio kanpaina ikustea besterik ez dago. Ez digute, ordea, enpresen iruzur fiskalaz hitz egiten eta ez digute argi esaten 2017ko aurrekontuetan AHTren eraikuntzarako DSBera bideratuko denaren hirukoitza gastatzea erabaki dutela. Bai, hirukoitza.

Enplegu-sorkuntza argumentu hutsala da AHT bezalako proiektu bat defendatzeko. Kontua da, zer enplegu eta zertarako sortzen ari garen. Helburua enplegua sortzea baldin bada, AHT kilometroak eraiki ordez, eraiki ditzagun osasun-zentro, zahar egoitza edota haur-eskola gehiago. Euskal AHTren eraikuntzaren kasuan, langileak oso baldintza prekarioetan ari dira lanean. Urko Apaolaza kazetaria lan izugarri garrantzitsua egiten ari da esplotazio horren testigantzak jasotzen.

Arazoa ez da ekonomikoa, ez eta ekonomialariena ere: zenbat eta ebidentzia gehiago jaso, geroz eta nabariago da ezetz, Euskal AHT ez dela sozialki errentagarria. Arazoa erabakiak hartzen dituztenena da, arazo politikoa beraz. Errentagarria ez dela jakinda ere, kilometroak eta zuloak egiten jarraitzen dugu. Politikariak tematu daude trenaren bideragarritasuna defendatzen. Nahiz eta aurreikusitakoa baino garestiago izango den hirietarako sarbideak egitea, nahiz eta estreinatu gabeko tunelak dagoeneko zaharkituta geratu diren. Noiz arte jarraituko dute AHT errentagarria dela esaten? ■

Banatuko bagina?



Zigor Etxeburua Urbizu

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO EUSKARAKO
ZUZENDARI, 2011-2015 LEGEALDIAN

Ez, tamalez ez da notizia izan egungo Gipuzkoako Foru Aldundiak bururaino eraman duela euskararen erabilera arautzen duen 2013-2017 normalizazio plana. Hori balitz! Albisteak EAEko Epaitegi Nagusiak eman du, aurreko legealdian osatu genuen planaren aurkako epaia eman baitu. Gauzatu da Espainiako Estatuaren zaldun Urkixoren mendekua. Ezin zuen eraman 2011n hasi eta 2015eko maiatzera arte iraun zuen amets egi bihurtua. Lehenik Gipuzkoako udalen aurka ekin zion, berreuskalduntzeko haien ahalegin koordinatu bikaina (kontratazio publikoetako hizkuntza irizpideak, helduen euskalduntzearen doakotasuna, komunikazio euskalduna...) zangotrabatzeko. Aldundia jomugan zuen, insurrekzio euskaltzale haren buru zelakoan, baina ezin. Aldundian, ordura arteko araua aldatu gabe praktikatu genuen gure hizkuntza politika berria, eta legealdi amaieran onartu genuen politika hori jasoko zuen erabakia. Bitartean, txapelokerrak frustratua zain zegoen, amorruz.

Euskaraz bizitzeko hautua eta determinazioa gauzatu genuen euskarari lehentasuna eman zion praktikan. Horretarako arrazoi teknikoak genituen (eta ditugu), bi hizkuntza ofizial izanik, hautatu egin behar baita zein jarri lehenengo eta zein gero. Gainera, arrazoi

Euskaraz bizitzeko apeta gisa saltzen digute, euskaldunon eta soilik euskaldunon kontu bat bailitzan. Gainera, Aldundian agintekide dira uste dutenak gehiegi dela lan publikoetarako euskara eskatzea, eta gipuzkoarron euskara planaren aurka egiteko Estatuaren X euro baliatu dira

soziolinguistikoak ere bagenituen (eta ditugu), Gipuzkoa lurralde euskalduna baita. Erakundeari zegokion errealitate euskaldun horri egoki erantzun zion

hizkuntza praktika garatzea, euskaldunen hizkuntza hautua erraztuz eta gaztelania nahi zutenen hautua bermatuz. Eta arrazoi politikoak genituen (eta ditugu) Euskal Herria berreuskalduntzea baita abertzaleon helburu behinena, eta horretarako, ekitatezko politikak ezarri behar dira euskararen mesedetan, "egoera desberdinetan daudenak berdin tratatzea ez baita berdintasuna, injustizia baizik" (Ekolingua).

Emaitzak entzutetsuak eta begi-bistakoak izan ziren: erakundearen agerraldietan eta ekitaldietan euskara nagusitu zen, aldi bereko itzulpena boladan jarri zen, euskaltegien ikasleak gehitu ziren, hizkuntza aholkularitzen telefonoak astindu zituen enpresa askok eta abar.

Orain zer? Bada, euskaraz bizitzeko apeta gisa saltzen digute, euskaldunon eta soilik euskaldunon kontu bat bailitzan. Gainera, Aldundian agintekide dira uste dutenak gehiegi dela lan publikoetarako euskara eskatzea, eta gipuzkoarron euskara planaren aurka egiteko, Estatuaren X euro baliatu dira, Aldundian buru den alderdiak babestu duen aurrekontutik. Teleberriak ez dizu kontatuko, baina gehitzen eta bizkortzen ari dira gure buruak gobernatzeko ahalmenaren eta nahiaren aurkako urratsak. Zenbat irabaziko genukeen Espainiatik banatuko bagina! ■



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

Aniztasuna



Eric Dicharry
IRAKASLEA

Zein mundu utziko diegu ondorengo belau-naldiei? Mundua aberastasun eta pobretasunerantz doa? Gutxiengo baten aberastasunaren metaketa. Zortzi pertsonen planetaren biztanle erdiaren adina sosa dute, munduko 3.500.000 milioik adina, bioaniztasunaren (40 urte barne, ornodunen erdia baino gehiago desagertu dira) eta ama lurraren pobretzearekin batera doaz. 23.250 landare eta abere espezie desagertzeko zorian daude. Argitalpen zientifikoen begiradak bertigoa ematen digu. Hizkuntzen desagertzea espezien aniztasunaren pobretzearekin batera doa. Artikulu hau aniztasunaren aldeko manifestu hausnartua da. Aniztasun linguistikoa eta urrunago espezien aniztasuna aldarrikatzen ditu. Kultur eta izadi aniztasuna. Bai, beste mundu bat eraiki daiteke. Ez da utopia, gizakien esentziarekin bat egiten baitu. Utopiak ez dira hilk, *ad infinitum* iraunkorrak baitira. Beste mundu bat eraikitzeko, inguruan dugun munduko errealitatearen kontzientzia agerian eman behar dugu. Gelditzen zaigun denbora baliatuz, ekintza konkretuak hausnartuz eta geure indarrak batuz mundua alda dezakegu.

Joan den astean, Azkainen ditudan AEK-ko ikasleekin karrikak bisitatzeraz joan ginen, azken klase gisara. Argazki ibilbidearen antolatzaileek argazki bakoitzaren ondoan, argazkiak argitzeko kartelak edota paperak ezarri zituzten. Argazkien ondoan, paper zurietan testu laburrak agertzen

ziren sortzaileen ikuspuntuak azaltzeko. Testu guztiak frantsesez idatziak ziren. Beste behin iruditu zitzaidan euskara baztertua kanporatua zapaldua minorizatua zela. Paperen aitzinean galdera hauek etorri zitzaizkidan bururat. Zer kostatzen zaie euskaraz idaztea? Antolatzaileek ez dute inor topatu testu labur horiek euskaratzeko? Hain zaila da horrelako testuak euskaratzeko? Beharko al dute diru publikorik zeregin xume hori egiteko? Hizkuntz kontu hori haien burutik pasatu zen edo hain ebidente zelako frantses hutsez egitea, ez dute beste hizkuntzez pentsatu ere? Zer-nolako arrapostua eman behar diegu horrelako ekintza kulturelei? Paperak ken? Paperak erre? Paperak margotu geure ezadostasuna erakusteko? Paperak artistikoki birpentsatu? Eta zer-nolako inpaktua ukanen dute ematen dizkiegun arrapostuek? Arrapostuek geure izateko era, geure nortasuna eta garena islatuko dizkigute.

Aniztasuna geure egunerokotasunetik desagertzen ari da eta arrapostua ez badugu ekintza bortitzetan ematen, ekintza zuzena den lengoaiaren ahozkoatasunean atzeman beharko da. Itzulia bukatzean, haxe pentsatu nuen: izan ginenaren sustraierat ez bagara joaten, geure mamuen mamuak bilakatuko gara. Zeren eta ez bagara izan ginena, baita ingurumenak erakusten diguna ere, nor gara gu? Frantses hutsez den papera? ■

01/01/4000



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Goian duzuen data, eta duzuen eran, da nik EHUrekin indarrean duan kontratuaren epemuga. Data txundigarria mesedez egiaztatzeko eskatu diot saileko idazkariari, ikerketa-proiektu baterako bete beharreko paperak tarteko, datu ofizial hori jakin beharra baitaukat. Data horixe dela berretsi dit idazkariak; koiunturagatik eta ez naizela bakarria kode hori duen langilea.

Badaezpadako beste kontsulta bat egin eta ondoan, dataren datu miresgarria zuzena dela egiaztatu didate: unibertsitatearen sistemak ageri duenez, 4000. urteko urtarilaren 1a arte da nire kontratuaren bukaera-data. Ikerketa-proiektu

tu baterako paperak txukun bete behar baitira, zientzia akademikoa egiteko asmoz zientzia fikzioaren legea bete dut azkenean, eta data galaktikoa ezarri dut paper ofizialean.

Bitxiena, baina, ondotik etorri da. Hilezkor sentitzen hasi naiz orduan eta betiereko morroi ikusi dut neure burua, kontratuak dioena nahi-taez betetzera kondenatua. Hala, aurretik nituen eskubideak galtzen joan naiz XXI. mendean barrena. Prekarietateak eragindako eldarnioei eusteko aski indarrik ez izaki eta, XXII. mendean sartu orduko, konortea ere galdu dut.

Zorionez. ■

Monarkia errepublikanoa



Jakes Bortairu

AB-KO KIDEA

Sorpresaz beteriko frantses ziklo elektoralak aspaldiko panorama instituzionala hankaz gora utzi du. Hauteskunde presidentzialen ondoren, Macron-zaletasun uhin azkarra altxatu da. Komunikazio plangintza eragin-korra garatu du presidente berriak, Frantziaren "handitasuna" eta bere autoritatea islatzen ahal zituzten ekintzak hautatuz. Hilabete batez hedabide handiek haren deklarazio, keinu eta ekimen guztiak laudatu dituzte, Emmanuel Macronen gaztetasuna, berritasuna eta ausardia azpimarratuz. Hauteskunde kanpaina merkea bezain emankorra.

Ondorioz, presidentearen mugimenduko hautagaien aldeko boz kopuruak biderkatu dira, nornahi aurkezturik ere. Gainerateko indar politikoenak aldiz, mugatuak egon edota azkarki tipitu dira. Aldi berean, abstentzioak, boto zuri eta baliogabekoek marka guztiak hautsi dituzte, hautesleen mesfidantza agerian utziz. Legegileen bigarren itzuliko botoen %49rekin, hautesle-riaren %18 soilik, Macronen aldekoek aukien %60 irabazi dute. Legitimitate instituzionala dute dudarik gabe, baina legitimitate sozial eskasa. Oposizioak berriz zafraldia bildu du, baina emaitzaz harago, beste ondorio arrunt berria gertatzen ari da Asanblada Nazionalan. Orain arteko eskuin eta ezker polarizazioarekin, alderdi bakoitzak

Emmanuel Macron presidentearen aldeko diputatuek berarekiko leialtasun adierazpena izenpetu behar izan dute alderdiaren babesa lortzeko. Baldintza horietan Exekutiboaren aurrean kontra-botere funtzioa nekez bete lezake Asanblada Nazionalak

arazorik gabe kokatzen zen gehiengoan ala gobernamentuarekiko oposizioan. Macronen eskaintza zentristarekin eta gobernuan parte hartzera konbentzitu dituen ezker nahiz eskuineko

politikarien laguntzarekin, areagotzen dira indar politiko hurbilen barneko kontradikzioak eta zatiketak. Eskuineko diputatu blokea bi taldetan lehertu da eta sozialistek neke handiz atxikiko dute kohesio politikoa. Hots, aukietan galtzaile izateaz gain, V. Errepublikako bizitza politikoa aspaldidanik egituratu zuten bi indarrak desagertzeko arriskuan gelditu dira.

Bitartean, Macronen aldeko diputatu gehienak aurpegi berriak dira, gazteagoak eta gizonak baino emazte gehiago dira. Goi-mailako sektore sozialekoak dira eta populazioa baino, "irabazten duen Frantzia" irudikatzen dute. Bakoitzak presidentearikiko leialtasun adierazpena izenpetu behar izan du alderdiaren babesa lortzeko. Baldintza horietan Exekutiboaren aurrean kontra-botere funtzioa nekez bete lezake Asanbladak. Arriskutsua ikusten dute batzuek, karrika geldituko baita oposizioa adierazteko leku nagusia. Hain zuzen, udan bertan MEDEF Frantziako Enpresen Mugimenduaren aldarrikapena den lan kodigoaren murrizketa, 2016an kontrako mugimendu sozial azkarra piztu zuen lan legea XXL formatuan so egileek diotenez, ordenantzen bitartez, hots, Legebiltzarreko filtrorik gabe, pasarazi nahi du Gobernuak. Gazte, berri, ausart baina betiko politika zaharren zerbitzuko. ■


MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako
Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otadui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

LUAarkitektoak
hirigintza
aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
peritazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...
Tel 948 13 26 97
lua@luark.com
Río Arga Kalea 28, 31014 Iruña

tradebi
EB Traducciones Itzulpenak, S. L.
tradebi@tradebi.com

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ARGIA

ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545



LA VIA CAMPESINA

La Via Campesinaren VII. Nazioarteko Biltzarra Munduko nekazari txikiek Euskal Herrian dute hitzordua



Unai Brea
@unaibrea

La Via Campesinak, munduko laborari elkarterik handienak, Euskal Herrian egingo du VII. Nazioarteko Biltzarra. Globalizazioari modu bateratuan aurre egiteko jaio zen antolakundea duela 24 urte; ordutik asko hazi eta sendotu da, politika neoliberalak areagotu diren hein bertsuan. Derioko apaiztegiaren batuko diren mundu osoko ehunka ordezkariak multinazionalen oldarraldiaz, nekazari txikien defentsaz eta lurra berreskuratzeaz jardungo dira, besteak beste. Elikadura burujabetzaz, bi hitzetan esanda.

1993an antolakundearen sorrerako bilkura Valonian egin zenetik, Europara berriz etorri gabe zegoen La Via Campesinaren Nazioarteko Biltzarra. Euskal Herria aukeratu dute horretarako, hainbat arrazoiengatik. Besteak beste, EAEko administrazio publikoak antolakundearen zenbait proiekturi ematen dien laguntza eta Paul Nicholson militante historikoak haren bilakaeran izan duen garrantzia. Nazioarteko Koordinazio Batzordean EHNE Bizkaiaiko kide Unai Aranguren egoteak ere izango du

zerikusirik, jakina. Orrialdea pasata irakur dezakezue hari egindako elkarrizketa.

Aranguren azaldu digunez, European laborantzak duen egoerari garrantzia emango zaio biltzarrean. “Europa orain arte kapitalismo sozialagoa, edo berdeagoa, izan da, eta orain kapitalismo hori basago bihurtu da; jendea konturatzen ari da sozialdemokraziak ez duela argi definituta zer nahi duen kontinenterako”. Ez da etxekoontzako gaia bakarrik; Europaren ahotsak berebiziko eragina du

mundu osoko nekazaritza politiketan, bai erakunde publikoen bai bertako enpresa transnazionalen bitartez.

Europar Batasunaren jarrera, esaterako, oztopo bihurtu da La Via Campesinak agendan duen asmo garrantzitsuenetako bat gauzatu dadin: NBEk nekazarien eta landa eremuetan lan egiten duten beste pertsonen eskubideen aldarrikapena egitea. AEBekin batera, EBk argudiatu du ez dela beharrezkoa laborarien eskubideak babesteko beren

-beregi tresna bat sortzea, Giza Esku-bideen Aldarrikapena aski baita, nekazaritzaren alorrari dagozkion eskubide espezifikoei dagokienez ere.

La Via Campesina izan zen nekazarien-tzako aldarrikapen hori sortzeko prozesuari bultzada eman ziona duela hamar-kada bat baino gehiago, eta ez dago orain amore emateko prest, are gutxiago kontuan izanda pixkanaka lortu dutela estatu batzuek hasieran zuten aurkako jarrera leuntzea. Borroka horretan eman beharreko pausoak Derioko biltzarreko hizpide nagusietako bat izango dira, Unai Arangurenek esan digunez: “Baikorrak gara, baliteke datorren urtean NBek adierazpen bat egitea, eta hori garrantzitsua da guretzat, gaur egun ez baitauekagu nazioarteko tresnarik –epaitegi bat adibidez– gure eskubideen zapalketak salatzeke, eta gero eta gehiegikeria gehiago jasaten ari gara multinazionalen aldetik”.

Nekazari militanteen aurkako erasoak gogoan

Gehiegikeria horiekin lotuta dago VII. Nazioarteko Biltzarrean jorratuko duten beste gaietako bat: nekazarien aurkako kriminalizazioa, errepresioa eta indarkeria. Oraindik orain eraso bat jasan duen Berta Zúñiga, 2016an Hondurasen eraildako Berta Cáceres ekintzailearen alaba, biltzarreko gonbidatueta bat izango da. Haren amari eta beste hildako batzuei omenaldia egiteaz gain, “VII. Biltzarrean nekazari jendeak elkartasunezko kontraerasoa abiaraziko du”, iragarri du La Via Campesinak.

Batzuentzat militantziak ez luke hain ondorio larririk izango jokoan dagoena oso garrantzitsua ez balitz. Baina bada. Denon elikadura da hemen solasgaia. Eta oroz gain, elikagaiak sortzeko eredu arteko talkaz egingo da berba Derion. La Via Campesinak VII. Nazioarteko Biltzarrean karietara zabaldutako dokumentazioan, lurraren, hazien, basoen, uraren eta bizilekuen defentsa aldarrikatzen da lehen-lehenik. Jabez aldatzen ari dira aipatutakoak, tradizioz landu edota erabili dituzten laborarien-gandik industria handietara. Eta industria hori are boteretsuago bilakatzeko bidean da, konpainia erraldioen fusioen bitartez (ikus LARRUN aldizkariaren 221. zenbakia). “Milaka urtez nekazari-iek izandako bizimoduaren aurkako mehatxurik handiena hortik dator”, dio La Via Campesinak.

200 MILIOI NEKAZARIREN ORDEZKARITZA

La Via Campesinaren lehenbiziko nazioarteko biltzarra Valoniako Mons hirian egin zuten 1993an, mundu osoko hainbat laborari elkarteetako ordezkariak bat egin nahi izan zutenean nekazaritzaren alorrean indarra hartuz zihuan globalizazioari aurre egiteko. Biltzar hura izan zen antolakundearen abiapuntua.

Gaur egun Afrika, Asia, Amerika eta Europako 150 talde baino gehiago dira La Via Campesinako kide. Guztira 200 milioi nekazari inguru. Euskal Herriko taldeei dagokienez, EHNE Bizkaia sindikatuak zuzenean parte hartzen du elkarteetan, eta EHNE, UAGA eta ELBK, berriz, Espainiako eta Frantziako estatueta COAG eta Confédération Paysanne sareen bitartez.

2000tik, Emakume Nekazarien Asanblada egiten da Nazioarteko Biltzarrekin batera, eta 2004tik, Nekazari Gazteena ere bai. Derion, hurrenez hurren, emakumeen bosgarrena eta gazteen laugarrena egingo dituzte. 500 pertsona inguru bilduko dira.



ADAM CLFCCBY

Derioko apaiztegian egingo dute La Via Campesinaren VII. Nazioarteko Biltzarra.

BILTZARRAREN EGUTEGIA:

- Uztailak 16-17:** Gazteen Asanblada.
- Uztailak 17-18:** Emakumeen Asanblada.
- Uztailak 19:** Nazioarteko VII. Biltzarrean inaugurazioa. Ohi bezala, antolakundeko kide berrien aurkezpena egiteko baliatuko da ekitaldia.
- Uztailak 19-22:** Biltzarra. Amaieran La Via Campesinak datozen lau urteetarako dituen erronkak eta estrategiak aurkeztuko dituzte.
- Uztailak 23:** Deriotik Bilbora martxa, eta manifestazioa Moyua plazatik Plaza Berrira.

Agroekologiaren defentsa

Nekazariak, eta ez konpainia handiek, landu behar dute lurra bertatik elikagaiak ateratzeko, baina ez edonola, La Via Campesinaren aburuz. Horregatik, agroekologiaren aldeko apustu politikoa garbia egiten du mugimenduak: “Agroekologiak botereari desafio egiten dio, eta tokian tokiko komunitateak jartzen ditu elikagai-ekoizpenaren erdigunean, naturarekin bat eginik. Ez da nekazaritzaren industria ‘egokitzeko’ tresna bat, haren alternatiba baizik”.

Derioko biltzarra amaitzearekin batera jakingo dugu zein erronka zehatz ezarriko dion La Via Campesinak bere buruari datozen lau urteetarako. Edozein dela ere, ez da txikia izango, aurrean dagoen arerioa ez den bezala. Nolanahi, antolakundearen mende laurdeneko bilakabi-deak argi uzten du erantzun globalizatuak beharrezkoak direla globalizazioari buru egiteko. La Via Campesina 200 milioi inguru pertsonaren ordezkaria da, eta horrek, Unai Arangurenk ohartarazi digunez, zenbait gobernu baino botere handiagoa edukitzea dakar. ■

5 HIZKUNTZA OFIZIAL ETA 80 INTERPRETE

“Hizkuntzaren aldetik ere erronka handia da honelako biltzar bat antolatzea”, dio Unai Aranguren EHNE Bizkaiko kideak. Denek elkar ulertu ahal izateko ezinbestekoa izango da borondatezko 80 interprete inguruk osatutako “gudarostearen” lana; “guretzat ondasuna dira, eta ondo zaindu behar ditugu”. Ohiko hizkuntza nagusiak (ingeleza, frantsesa, gaztelania eta portugesa) izango dira ardatza, eta horiekin batera euskarak ere izango du ofizialtasun estatua.

Alta, bost hizkuntza horietako bakarra ere ez dakiten pertsona asko izango dira biltzarrean. “Horiek beren itzultzaileekin batera etortzen dira, eta haiek egiten dute zubi-lana hizkuntza ofizialeko batekin”, azaldu du Arangurenk.

Unai Aranguren
(EHNE Bizkaia):

“Multinazional handiek merkantzia bihurtu dute gure ustez eskubidea dena”

La Via Campesina bederatzi eskualde handitan banatuta dago, eta horietako bakoitzak bi ordezkari ditu antolakundearen Nazioarteko Koordinazio Batzordean. Lau urteko honetan Unai Aranguren (Galdakao, 1971) EHNE Bizkaiaiko kidea da organo horretan Europak dituen ordezkarietako bat. Hortaz, buru-belarri jardun du Derioko biltzarrean eztabaidatuko diren gaien prestakuntzan. Konpainia handien eta laborari txikien ereduaren arteko talkaz berba egin dugu harekin, besteak beste.



24 urte geroago, berriro European egingo da La Via Campesinaren Nazioarteko Biltzarra. Oso desberdinak dira laborarien arazoak European –edo Mendebaldean, oro har–, eta munduko gainerako eskualdeetan?

Arazoak eta erronkak agian ez, baina egoerak bai. Munduko leku askotan nekazariak herritarren erdia edo gehiago dira oraindik; aldiz, Europa mendebaldean eta Amerika iparraldean %3 gara. Ondorioz, estrategiak ez dira berdinak. Hemen aliantzak egin behar ditugu beste eragile sozial batzuekin, eta han nekazari mugimenduak berez du pisu handia. Baina arazoak antzekoak dira leku guztietan.

Eta zeintzuk dira?

Lurren pilaketa, hazien pribatizazioa, politika publiko oso neoliberalak... Tokian tokiko elikadura-sistemak hautsi eta lauzpabost multinazional handik

bereganatu dituzte, eta gure ustez eskubidea dena merkantzia bihurtu dute. Gaur egun dirua ematen duena ez da baserri autonomia, inguruko gauza guztiak produkzioarako erabiltzen dituen; gaur egun dirua lehengaiak ematen du, ez elikagaiak. Alegia, lehengai jakin batzuk merke ekoiztea hori egin daitekeen lekuetan (Afrika, Amerika...), eta mundu osoan zehar mugitzea. Hartzen dugu

» “Munduan jaten denaren %70, oraindik, baserritar txiki eta ertainek ekoizten dute, nekazaritzara bideratutako lur sailen %30en jabe basterik ez badira ere”

palma-olioa, hartzen dugu azukrea, hartzen dugu soja, eta magdalenak egiten ditugu. Hori da multinazionalen diru asko irabazteko asmatu duten sistema. Hala ere, esan behar da munduan jaten denaren %70, oraindik, baserritar txiki eta ertainek ekoizten dutela, nekazaritzara bideratutako lur sailen %30en jabe basterik ez badira ere.

Eta beste %70 zertarako erabiltzen da?

Multinazional handiak, baita gobernu batzuk ere, lurra erosten ari dira espekulazioarako, batetik; agroerregaiak ekoizteko, bestetik; eta aipatu ditudan lehengai horiek ekoizteko ere bai. Haien zatirik lurra ondasun garrantzitsua da, eta ahalik eta gehien pilatu nahi dute. Askotan pentsatu dugu negozio hori Hegoalde globalean bakarrik egon dela, baina European ere ikusten ari gara gero eta espekulazio eta lur kontzentrazio handiagoa dagoela. Gainera, lur



ARITZ LOIOLA

horiek izateagatik Europar Batasunak diru-laguntzak ematen ditu, eta horiek ere kontzentratu egiten dira.

Lurren %70 horretan ekoizten da lehen munduko ganaduarentzako janaria ere, ezta?

Bai. Europak, esaterako, Amerikan ekoizten den sojaren %100eko dependetzia du bere behiak elikatzeke. Hona argazki bat: Hegoamerikan latifundio handietako soja bidaltzen da Europara, Europak soja horrekin bere esne-produkzioa loditzen du abeltzaintza intentsibo eredu baten barruan –horrek ingurumenari dakarkion kaltearekin, bide batez–, eta gero produkzio-kostuen azpitik bidaltzen du esnea beste merkatu batzuetara, EBren laguntzei esker, merkatu horiek saturatzeko. Sistema makur hori eraldatu nahi du La Via Campesinak, eta uste dut helburua lortzeko tresnak baditugula.

Jaten dugunaren %70 laborari txikiek ekoizten badute oraindik, zergatik esaten da transnazionalak elikadura kontrolatzeko zorian direla?

Leku batzuetan nekazari asko dago eta oraindik ere nekazarien produktuak jaten dira. Baina Euskal Herrian, adibidez, jaten dugunaren oso portzentaje txikia da berton ekoizitakoa. Mugarik Gabeko Albaitariak GKEak egindako ikerketa baten arabera, hozkailuetan ditugun elikagaiek, batez beste, 5.000 kilometro egiten dituzte guregana iritsi aurretik. Eta hori da negoziua. Espainiako hegoaldea da Europan nekazaritza ekologikoa gehien igo den lurraldea, baina produktu ekologikoen kontsumoa ez da igo batere. Nora doa produkzioa? Europa iparraldera. Eta Espainiara doan produktua Marokotik doa, askoz merkeago. Esan gabe doa egoera ilogiko horretan izaera ekologikoa galtzen dutela produktuek; kontsumitzailearengana iristeko milaka kilometro egin dituen produktu bat ezin da ekologikotzat jo, ekoizteko modua hala izanagatik.

Enpresa transnazionalek elikagaien merkatuaren kontrola hartzeko duten estrategiez ari ginen...

Multinazionalek kontrolerako hainbat bide dute. Bata produkzioaren ingurukoa da: beraiek ezartzen dute zer ekoitzi behar den, eta ez bakarrik zer, baita zein aldaera ere, eta zer tratamendu eman behar zaien. Zuk ezin duzu baserrian nahi duzuna ipini, Eroskik nahi duena baizik. "Letxuga mota hau nahi dut, halako tratamendu koadernoarekin hazitakoa eta halako poltsan ekarria". Eta gainera, haiek ezarriko dute prezioa. Tira, hasieran agian ez, hasieran baserritarrak eskatzen duen prezioan erosiko dute, baina hark bere lehengo merkatua (denak, jatetxeak, kontsumo taldeak...) galdu ahala, nekazariari salmenta-gutune bakarra geratzen zaionean, erosleak kontrolatuko du dena, eta prezioa jaitsi egingo da.

Zergatik galtzen dira aurreko bezeroak?

Erosle handiak esaten duelako: dena niri eman. Eta askotan erosoagoa da bakarrari saltzea lekuz leku ibiltzea baino. Baina ez du merezi, azkenetako erosle handiak gero eta gehiago estutuko nau eta.

INAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com



TALLERES
MITXELENA
S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

“LABORARIOK PLANETA HOZTU DEZAKEGU”

La Via Campesinaren ustez, 2016 hondarrean Marrakexen egindako COP22 klimaren gailurrean “herrialde aberatsak eta korporazioak, hau da, beroketa globalaren erantzuleak, berriro saiatu ziren krisi klimatikorako ‘irtenbide’ teknokratikoak proposatzen”. Baina horien benetakoa helburua ez da klima aldaketa konpontzea, beste negozio-bide bat irekitzea baizik, Unai Arangurenaren esanetan.

Azken urteetan “nekazaritza klimatikoki inteligentea” etiketa zabaldu da laborantzaren alorretik klima aldaketari aurre egiteko zenbait neurri izendatzeko, industriak sustatutako neurriak beti ere. Kontzeptua FAOren beraren babesa du, baina ez La Via Campesinan dauden elkarreana, ez talde ekologista gehienena ere. “Nekazariengan beren produktuekiko menpekotasuna sortzeko beste bide bat besterik ez da nekazaritza klimatikoki inteligentea delakoa”, dio Arangurenak; “eskualde batean lehen baino euri gutxiago egiten badu klima aldaketaren



LA VIA CAMPESINA

ondorioz, lehortearekin ondo ere ernaltzen diren haziak saltzen saiatuko dira, baina horrekin ez dute lehortea konponduko, ez diote arazoari irtenbiderik eskainiko”.

Derioko biltzarrean La Via Campesinak estrategia bat ondu nahi du nekazari txikien ohiko lan moldeak klima aldaketari kontrako neurri egokitzat aurkezteko. “Laborariok planeta hoztu dezakegu”, diote aspalditik. Funtsean, nekazaritza industrialak alboratzea da eskaintzen duten alter-

natibaren muina, “eredu horrek eragiten baitu berotegi efektuko gas emisio guztien erdia inguru”. Elikagaiak mahairano egiten duten distantzia laburtuz eta pestizida eta ongari sintetikoak baztertuz, besteak beste, gas igorpenak gutxitu daitezkeela aldarrikatzen dute. Metodo industrialen erruz pobretutako lurzoruari galdutako materia organikoa itzultzeak, berriz, handitu egin dezake lurzoru horrek atmosferako CO₂-aren zati bat xurgatzeko duen ahalmena.

Eta hala ere bide hori hartzen dute askok. Nolatan?

Presio handia dago sektorean. Administrazioa, nekazaritza eskolak, kooperatibek, pentsu etxeek, albaitariak... Denek irabazten dute nekazaritza eredu intentsibo batekin, aserritarrek izan ezik. Zenbat eta eredu intentsiboagoa, orduan eta diru mugimendu handiagoa sortzen da baserriaren inguruan, eta hori interesgarria izan daiteke beste sektore batzuentzat, baina ez guretzat. Guri interesatzen zaiguna elikagai on eta osasungarriak egitea da, eta hain zuzen horren kontra doa eredu hori. Ona da gure inguruan etekina sortzea, baina etekin hori soziala izan behar da, ez enpresa konkretu batzuentzako.

Industriaren presiobide nagusietakoa haziak merkantzia bihurtzea dela salatu ohi duzue. Hori ere hizpide izango da Derioko biltzarrean.

Zailtasunak ipintzen dizkiete baserritarrei eguneroko lanerako. Haziak nahi badituzu, hazi patentatuak izan behar dira. Eta hala izan dadin lege batzuk ezarri dituzte nazioarte mailan; betidanik etxean erabili dituzun haziak, belaunaldiz belaunaldi hobetuz joan direnak eta herriaren ondare izan direnak, orain erosi egin behar dituzu, eta gainera hazi

» “Elikadura-sistema industrial makurra eraldatu nahi du La Via Campesinak, eta uste dut baditugula horretarako tresnak”

» “Zenbat eta eredu intentsiboagoa, orduan eta diru mugimendu handiagoa baserriaren inguruan; hori interesgarria izan daiteke sektore batzuentzat, baina ez guretzat”

antzuak dira, ezin dituzu berriro erabili zuk etxean eta urtero erosi behar dituzu. Eta orain beste koska bat gehitu diote sistema horri, klima aldaketarekin lotuta: nekazaritza klimatikoki inteligentea [ikus goiko koadroa]. Haiek gogoan

dutena, azken batean, menpekotasuna sortzea da. Zelan? Bada, ekoizpen-menpekotasuna sortuz (haziak behar dituzu, pentsua behar duzu, intsumoak behar dituzu...). Baina beharrian horiez gain badituzu energetikoak, finantzarioak, formakuntzazkoak... Horien guztien atzetik negozioa dago, eta denak kontrolatzen dituzte. *Pack* baten modukoa da, nik eskaintzen dizut haziak, hura erosteko kreditua, aholkatuko zaituen teknikaria, aseguruak... Eta gainera, produktua saltzeko salmenta edo kooperatiba sistema bat. Gehi teknologia. Azkenean haien peoi huts bihurtzen zara.

Eredu horren aurrean nekazari txikien laborantza eta agroekologia zabaltzea izango da VII. Nazioarteko Biltzar hone tan egingo duzen aldarri nagusia. Askok zalantzan jartzen dute eredu horrekin denok jan dezakegunik.

Denok, eta are gehiagok. Lurraren %30 izanda janariaren %70 ekoizten dugu, beraz... Esaten zuten ez garela gai gizadi osoari jaten emateko, eta horregatik asmatu zituzten transgenikoak, baina datua da 1.000 milioi pertsona gosez daudela munduan, eta 1.200 milioi gainpisua dutela. Bitartean, ez dakit zenbat milioi tona elikagai botatzen dira egunero zaborretara. ■

Peio Etxeberri Aintziart [EH Baiko hautagaia]**Mikel Asurmendi**

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

“Azken mohikanoen sindromea kausitzen dut hainbat abertzalerengan”

Baionan sortu zen 1973an, baigorriar familia batean. Alabaina, Donibane Lohizunen hazi eta hezi da tipitatik. Herri Berri taldeko hautetsia da bere herrian. EH Baiko hautagaia izan da azken bi hauteskunde legegileetan, VI. barrutian. Historialaria da. Elkar argitaletxeko editore lanetan ari den politikaria: “Historialariaren eta politikarien funtzioak ez dira erraz uztartzen, politikak anitzetan erabiltzen du historia, eta ez honen mesederako preseski” erran digu.

**12.665 hauteslek eman dute boza EH Bairen alde. Zein da emaitzen balorazioa?**

Espanturik gabe, emaitza baikorki hartu dugu. Lehenik, hauteskunde legegileak zailenak direlako, Frantziako Asanblea Nazionalerako diputatua hautatzen baita. Abertzale bat hautatzea arraroa da. Alta, EH Bai hirugarren indarra izan da Ipar Euskal Herrian. Boz kopurua eta portzentajea emendatu ditugu. Testuingurua zaila da: hauteskunde legegileak presidentzialek baldintzatuta daude, boz horien ondoren hautesleriak hautatu berri den presidenteari eman ohi dio boza berriz ere. Hexagonoko zortzi hilabeteko kanpainaren ondoren –ezkerren eta eskuinaren primarioekin hasi zena– gu agertu gara, azken unean. Baldintza horietan boz kopuru hori lortzeak balore izugarria dauka. Gainera, abstentzioa inoiz baino handiagoa izan da, eta guk goiti egin dugu gure tipian.

Hauteskunde-barrutitik barrutira, zer azpimarratuko zenuke?

VI. barrutian, Donibane Lohitzunekoan, eta IV.enean, Biarnorekin lotzen gaituen barrutian, ongi ari garela, baina BABn (Baiona-Angelu-Biarritz) dela gure puntu ahula. Hiri handietan emaitzak txarrak ditugu, emendatzen ari bagara ere –egiarri zor Miarritzen ere aitzina egin dugu–, orokorrean ez dugu lortzen aski emendatzea.

Nola emendatu daitezke emaitzak BABn?

BABn edo hirietan ez dago patu txarrik. Adibidez, 2001ean, Donibane Lohizunen, Herri Berri sortu berria zelarik, %11,5 egin genuen, ez zen izan portzentaje alimalekoa, baina bozetik bozera lan eginez, herriko lanetan presente egonez, hamasei urte berantago, bozen %26 egiten dugu. Oposizioko lehen taldea gara Herriko Etxean, lau hautetsirekin. Eta Donibane Lohitzunek antza gehiago dauka Biarritzekin, Ezterenzubirekin baino. Alegia, BABn ere emendatu daiteke. Baina horrek eskatzen du eguneroko politikan presente egotea. Hiriko abertzaletasunaren arazo

estrategikoa ageri da hor. Miarritzen ez dugu herriko bozetan zerrenda abertzalerik. Hautagai abertzaleak, erosotasunez beharbada, besteen zerrendetan aurkeztu dira, gehienak eskuineko zerrendetan. Nola nahi duzu gero emendatzea gainerako hauteskundeetan? Nola nahi duzu sinesgarritasuna lortzea, ez baduzu mezu propiorik legegileetan zure aldeko boza eskatzeko. Herri lanean eta herriko bozetan dago gure soluzioa, horiek ez baditugu sakon lantzen nekez emendatuko gara hirietan.

Alta, EH Baiko sei hautagaiak gero eta ageriago izan zarete herri nahiz hirietan?

Baiki. Gure adina azpimarratzekoa da, 40 urte ingurukoak gara. Beste hautagairekin alderatuta, gazteak gara. Gure indarra horretan datza. Aire freskoa ekarri dugu politikara, abertzaletasunaren mezua aldatzen ari gara. Duela urte zenbait “gu euskaldunak gara, zuek ere izan zaitezte” erraten genion jendeari. Mezu bakar horrekin kostaldeko hirietan “gu euskal-

dun?” zioten. Oraingo mezua aldiz, hauxe da: “Izan zaitezke euskaldun, eta bizitzaren arlo hauetan –etxebizitza, enplegua, garraioa, hondakinak...– soluzioak aurkezten dizkizuegu, besteek ez dituztenak edo haien bestelakoak”. Donibane Lohitzunen etxebizitza aipatu dugu azken kanpainan eta sinesgarritasuna lortu dugu. Jendeak ez gaitu ikusten euskaldun eta abertzale gisa bakarrik, beren bizitza hobetzeko alternatiba gisa baizik. Mezu koherente hori da gure arrakastaren gakoa. Gazteak gara, ezkertiarrak, teknikoki serioak, pedagogia politikoa ere egiten dugu, ez gara dogman eta mezu sinplistetan erortzen.

Gakoa, beraz, tokian tokiko hautagaitza abertzaleak eta EH Bai uztartzea da.

Bai. Herri Berri hautagaitza adibide ona da, baina ezin da parekatu EH Bai eta Herri Berri. EH Bai alderdi abertzale ezker-tiar eta ekologikoa da, Herri Berri aldiz anitz zabalagoa da. Herri Berri taldean nukleo abertzale bat dago, eta inguru hurbilean abertzaleak ez direnak. Adibidez, PCFko Ivette Debarbieux (Alderdi Komunistako kidea) Herri Berrin sartu da, aitzineko bozetan PCFko eta PSko zerrendetan egon ondoren. Emakume horrek ez du bere alderdia utzi, baina gu ezagutu ahala dinamika abertzalean sartu da. Esaterako, Bake Bidea ekimenean ari da. Ez nuen uste Legebiltzarrerako hauteskundeetan gu sostengatuko gintuenik, PCF alderdiak eta Frantzia Intsumisoak beren hautagaia aurkezten baitzuten. Guregandik aski urrun ziren jende batzuk pixkanaka ari dira hurbiltzen, sinesgarriak bilakatzen ari gara ikuspegi irekia eman dugulako gurekin batera aritzeko. EH Bai ari da zabaltzen. EH Baiko dinamika *biziosoa* ari da *birtuosoa* bilakatzen. Uztaritzeko Herriko Etxearen eta Bruno Carrere auzapezaren bilakaera horren adibidea da.

Abertzale batzuek hauteskunde legegiletan parte-hartzea sistemari jokoa egitea dela diote.

Ez naiz ados horiekin. Sistematik kanpo egon daiteke, baina jarrera horretan azken mohikanoen sindromea kausitzen dut: “Ari gara desagertzen eta desagertzeko prest gaude, aratz eta garbi”. Nik ez dut desagertu nahi. Areago, ez desagertzeko eta nire alternatiba sustraitzeko sisteman egon behar dut eta berau barnetik aldatu. Sistematik kanpo egonik jendeak



marjinal bat bezala hartzen nau eta desagertuko naiz. Nik arazoei aurre egin nahi diet aktiboki. Herriko merkatuan ibiltzen naizenean, “zer erran behar diot ene auzokideari hobekiago ulertua izateko?”, galdetzen diot ene buruari. “Euskalduna naiz, zure sistemak itotzen nau, ez dut zurekin deus jakin nahi” erraten badiot, “nor da zozo hau?” pentsatuko du. Abertzale batzuek nahi dute garbi egon, besteok borrokaz tronpatzen gabela diote. Gure bidea kritikatzten duten horiek ez ditut inon ikusten, artikulu batzuetan edo ostatuetao terrazetan “zuek denbora galtzen duzue hauteskundeetan” erranez ez bada. Zein da haien alternatiba? Gu tronpatzen gabela esatea alternatiba proposatu gabe, arduragabekeriatzat jotzen dut.

Abertzaletasuna bihurgune batean dago betiere Iparraldean.

Hain segur. Ni ez naiz abertzalea bakarrik, hiritarra ere banaiz. Kontzientzia hiritarra daukat, jendartearen begiratzaren dudalarik ez diot soilik ene ikuspegi abertzalea eskaintzen, moralitasuna defendatu nahi duen ikuspegia baizik. Ni Peio Etxeberri-Aintziart burges tipi bat naiz, badut lana, etxe bat, ez naiz pobrezian, baina jendea langabezian ikusten dut: paperik gabeak, beltz edo arabiar estigmatizatuak, elbarriak eta abar. Ere mu politikoa abandonatzen badut, ez badut alternatibarik proposatzen, areago, ez

badut bozkatzen beste batzuk uzten ditut ene izenean hautuak egiten. Demagun, Fronte Nazionalak (FN) aginduko balu, ondorioak ez nituzke baitezpada nik sufrituko, jende horiek baizik. Bozkatzen dudalarik, beharbada elikatzen dut sistema, baina hasteko pentsatu nahi dut pertsona horien alde ere bozkatzen dudala. Kritikatzten gaituzten horiek argi eta garbi egoten ahal dira, baina hein batean egoistak dira.

Emmanuel Macronen Errepublika Martxan alderdia garaitu da. Emaiguzu fenomeno politiko berri horren zure aburua.

Egoera arras berria da eta nehork ezin du Macronen bosturtekoak zer emanen duen aurreikusi. Orain arte, V. Errepublikan alternantzia klasikoa ezagutu dugu, eskuina eta ezkerreko alderdiak. Aldaketak Estatuaren arazo estrukturalari erantzun nahi dio epe ertainean, krisi egoerari lotua dena gainera. Krisiak hiru hamarkadatan iraun du eta azkenekoan areagotu da krisi ekonomikoa, soziala eta klimatikoa dela eta. Jendea ase da, eskuin eta ezkerreko alderdiak ez baitute aterabiderik atzeman langabeziaren arazoan. Hauteskundeetan abstentzioa handituz doa, eta eskuin muturra eta ezkerreko alderdiak handituz joan dira: FN eta Frantzia Intsumisoa horren adibidea dira. Fenomenoa hauek ere Europako alderdiak dira. Frantziako Estatuan ez zela gertatuko uste zuten, baina hemen



"Donibane Lohizuneko jendeak ez gaitu ikusten euskaldun eta abertzale gisa bakarrik, beren bizitza hobetzeko alternatiba gisa baizik".

ere gertatu da, eta ez bakarrik arrazoi es-
trukturalengatik, arrazoi koiunturalen-
gatik ere bai. Politikariek ez dute krisia
konpontzen laguntzen, gainera haien po-
litikan irregulartasunak izan dituzte, be-
ren lagunak enplegatzen dituzte modu
fiktizioan, hots, sosa ebasten dute.

Sistemako botereek Macronengan ikusi dute nolabaiteko irtenbidea.

Macron ohartu zen jendea ase zela, as-
pertuta, eta botere esparruan sartzeko
leiho bat behar zuela, leiho hori esku-
inak eta ezkerrek eskaini diote. Eskuinak
primarioetan François Fillon hautatzean
-hautagai eskuindarra, tradizionalis-
ta- Macroni zentroa zabaldu zion. Alain
Juppé izan balitz, Macronek ez zukeen es-
pazio hori ukanen. Ezkerrean berdin, bos-
turteko agintaldi txarra eta gero Benoît
Hamon hautatua izan zen, ezkerrenean
zegoena. Manuel Valls izan balitz ezberdin
zitekeen egoera. Horrek guztiak ekarri
dio Macroni espazio zabalago bat. Nehork
ezin du erran zer emanen duen, berak
dio, ezkerretik eta eskuinetik elikatzen
dela, baina nik ez dut sinesten esparru
zabal horrek epe luzera iraun dezakee-
nik. Areago, nahasketa horretan eskuina
aterako da garaile, liberalismoa. Horrek
ez du gehiengo aseko. Urte batez edo biz

atxikiko du, komunikazioari esker, baina
une batez hainbat gaietan hautu bat egin
beharko du, eta orain dituen sostenguak
galduko ditu.

Florence Lasserre-Davide eta Vincent Bru dira Ipar Euskal Herriko diputatu berriak, Macronen aldekoak.

Diputatu horiek ezagututa, Macronen
alternatiban areago handitzen zaizkit
zalantzak. Kargurik izan ez duten pertso-
na gisara ekarriak dira, politika aldatu-
ko dutenak, eta ez da egia. Batetik, Las-
serre-Davide, Jean-Jaques Lasserreren
alaba, Angeluko eta Departamenduko
hautetsia da, ez da bilkuretar joaten, ez
du deus egiten. Colette Capdevielle dipu-
tatu ohiaren aurka lehiatu da kanpainan,
ez zituen dosierak ezagutzen, ez zen
gauza eztabaidetan deus esateko. VI. ba-
rrutiko diputatu berria Vincent Bru da,
Kanboko auzapez 30 urtez, Departamen-
diko hautetsia ere bai, duela bost urte
Les Républicains-eko Michèle Alliot-Mar-
rie diputatu eskuindarraren ordezkoa
izan zen. Bayrouren MoDemek behartu
zuen Macronen En Marche alderdira pa-
satzera. Hori al da politika aldatzea? Hala
ere, jendeak biak hautatu ditu, Macron
uhinak bultzaturik. Abstentzioa handi-
tzeko arriskua gero eta handiagoa da,

» “Kasu, gehienetan
notableak gehien
kritikatzen dituztenak
dira haien partez *notable*
bilakatu nahi dutenak”

» “Diputatu berriak
ezagututa, Macronen
alternatiban areago
handitzen zaizkit
zalantzak. Kargurik izan
ez duten pertsona gisara
ekarriak dira, politika
aldatuko dutenak,
eta ez da egia”

baita jendeak politikariak uzkur begira-
tzeko ere.

Alta, François Bayrouk Moraltasun Legea ezarri nahi zuen politikan. Zer iritzi duzu?

Jendeok -emakume eta gizonek- egiten
dugu politika. Gizakiak garen ber badi-
tugu mugak, muga moralak. Boterea eta
sosa jokoan direlarik, politika profesiona-
lizatzen hasten delarik, “ez dut nire kar-
gua eta karrera galdu nahi, ez jendartean
ohorea galdu nahi” joera nagusitzen da.
Goxoa da hautetsia izatea, balore eran-
tsia dauka. Horrek dena erotzen du po-
litikaria, ez bakarrik Parisen, han batez
ere, baina gu herriko hautetsiak ez gaude
arrisku horretatik kanpo, gure herriko
etxeetako kargu tipiak ere ekartzen digu
ohorea -ez baitezpada sosik, ez dugu so-
sik irabazten- Enbatak edota EMak ira-
ganean kritikatu genituen ohorea eta no-
tabilismoa. Kasu, gehienetan *notableak*
gehiak kritikatzen dituztenak dira haien
partez *notable* bilakatu nahi dutenak.
Beraz, mugimendu abertzaleak hautetsi
gehiago ukan ahala, arrisku hori dauka.
Bere tipian, hainbat herritan hasia da jo-
kamolde hori zabaltzen. Guk ere, abertzale-
leok, lanjer hori dugu, eta zepo horretan
berean eror gaitezke. Beraz, has gaitezen
gure etxean berean joera hori garbitzen. ■

Urretxindorra proiektua

Gazteak ume migranteei bidea errazten



SOS Arrazakeria elkarteak 3. ikasturtez Urretxindorra proiektua eramán du aurrera: jatorri atzerritarreko 10-14 urte arteko ume banarekin astean hiru ordu eman dituzte 28 gaztek, borondatez, aisialdia partekatuz. Migrazio prozesua bizi duen umearen “motxila” arintzen laguntzen duela kontatu digu Loira Manzani SOS Arrazakeriako kideak, eta “proiektua aldebiko onuraren isla dela” azpimarratu digute tutoretza lan horretan boluntario aritu diren Aitor Martín Camerón eta Oihana Bellido Sesma. Gure herrietako hainbat umeren bizipenak ikusarazten lagundu digute euren hitzek.

Oihana Bellido Sesma, Urretxindorra proiektuan borondatez aritu den tutorea; Loira Manzani SOS Arrazakeriako langilea eta Aitor Martín Camerón tutorea.



Eitzu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Kataluniako Ruiseñor proiektua “kopia-tu eta hemengo egoerara egokitu” dutela kontatu du Manzanik. Bizitzako garai batean bera baino nagusiagoa den gazte baten erreferentzia ongi etorriko zaien umei aukera hori ematea da helburua: “Badira beren emozioak kudeatzen eta adierazten ikasi behar duten umeak, badira sozialki harremanak izateko zailtasunak dituztenak, badira iritsi berri direnak eta beraz ingurua ezagutzen ez

dutenak...”. Manzanik adierazi du horrelako beharrak edozein umek izan ditzakeela, baina Urretxindorra proiektuan jatorri migranteko umeetan zentratu direla, SOS Arrazakeria elkartearen egitasmoa delako, alde batetik, eta migrante egoerari lotutako motxila batzuk ere badirelako, bestetik: “Ume askoren bizipena da gurasoengandik banatu zirela jatorrizko herrian, gurasoak hona etorri zirelako lan bila. Handik urte batzuetara

hemen elkartzen dira berriz, nerabezaro betean, ordura arteko bere erreferentziak diren lagun eta helduak jatorrizko herrian utzita”. Migrazio doluaz mintzatu zaigu Aitor Martín Camerón, Hondurasko 14 urteko umearekin borondatezko mentoretzan aritu den Tuterako gaztea: “Etortzeko erabakia bere gurasoek hartu dute, eta urte eta erdiz egon zen ama gabe, bere ama hemen zegoelako lanean bera ekartzeko dirua irabazten. Horrek

ondorioak ditu umearengan. Tutoreok ondoan gaude, bere borondatearen aurka hartutako erabakiak ekarri dion egoera aldaketara egokitze prozesuan”.

Tutorea: erreferente gaztea eta ez instituzionala

Urretxindorra proiektuan lehen aldiz parte hartzen duten kide denei zail egiten omen zaie ulertzea juxtu zein den mentoreen funtzioa; bai gurasoei, umeei eta tutoreei beraiei ere. Martín Camerónek azpimarratu du tutorearen eta umearen arteko harremanaren oinarria “pertsonala dela, ez da ezer instituzionala. Lagun egin gara, eta nire haurrak behar zuen instituzioetatik kanpoko figura bat egunerokotasunean, ordura arte zituen baliabide gehienak instituzioek emandakoak baitziren”. Manzanik azaldu du berariaz hautatzen dituztela tutore gazteak, “helburua baita erreferentziatzeko pertsona hori ez izatea umeak guraso edo irakasleekin identifikatuko duen heldua. Umeek ikus dezatela eurak urte gutxi barru izango direla egun mentorea den pertsona hori”. Oihana Bellido Sesma Donostiako gazteak berretsi du laguntasunezko harreman izan duela 9 urteko bolibiarra-ekin: “Ni pixka bat zaharragoa izanik eta gertutasunari esker, konfiantza izan du bere arazoak kontatzeko”. Manzanik azaldu du mentore izateko ez dela aparteko formaziorik behar, “eskatzen dieguna da enpatia eta motibazioa”. Tutorearen funtzioa ongi mugatua baina bere horretan emankorra dela adierazi du: “Ondoan egotea astean hiru ordu horietan, saiaturaz aisialdiko denbora hori hezitzailea eta eraikitzailea izan dadila. Eta konfiantza izatea elkarren artean, umea eroso sentitu dadila mentorearekin, nahi duena kontatzeko edo proposatzeko. Horraino. Arazo horiek konpontzen saiatzea ez dagokio mentoreari. Ongi pasatzea da oinarria, eta hori bera ere ez da gutxi egoera zaila bizi duten umeentzat. Gazte batek galdetzea zer den egin nahi duena eta hori bilatzea, asko da!”.

Hemengo ere sentitzen laguntzeko

Bikote bakoitzak erabaki du hiru ordu horiek nola antolatu eta denbora horretan zer egin. SOS Arrazakeriak Urretxindorra proiektuan parte hartzen duten kide guztiei zuzendutako ekin- tzak antolatu ditu, eta nahi izan dute-

nek bertan parte hartu dute. Martín Camerónek kontatu du asko baliatu dituztela jarduera hauek, “oso gustura egoten baikinene beste mentore eta umeekin. Horrela, biltzen ginen atzerrietan jaiotako umeekin, eta horrek asko irekitzen du lurraldetasunaren kontzeptua, proiektua aprobetxatu dugu asko ikasteko. Eta bestalde, nire haurrak bazuen aukera beste mentore batzuk ezagutzeko, bertakoen erreferentzia gehiago izateko”.

Bai Martín Camerónek eta bai Bellido Sesmak azpimarratu dute Urretxindorra proiektuaren bidez ume hauek hiria, kultura eta hizkuntza gehiago ezagutu dituztela. Beren jatorrizko kulturari eusteari garrantzia handia ematen diote, eta aldi berean, bertakoari leku bat egiten saiatu dira tutoreak. Martín Camerónek azaldu duenez, “nire haurra duela bi urte etorri zen, 12 urterekin, eta dagoeneko oso ongi ezagutzen zuen Donostia fisikoki, baina ez zen gerturatzeko hemengo bizitzeko modura eta kultur ekitaldietara. Ezagutzen zuen Olentzero edo Donostia Eguna, baina ez zituen bizi. Kontua ez da ez duenik ekitaldi horietara gerturatu nahi, baina parte ez sentitzearen sentimendua bazuen. Kontziente zen bera beste leku batetara zela. Pareta hori gainditzeko saiatu naiz, hemen dagoen unetik, hemengoa ere badela transmititzen”.

Umeek euskararekiko duten harremana estutzen saiatzen dira Urretxindorra proiektuan. Ume batzuek jarrera ezkorra dute euskararekiko; Manzanik jarri die hitza haien sentimenduei: “Euskara bizi dute eskolako eta akademiako hizkuntza bailitzan, beste haurrak iristen diren iristen uzten ez dien elementu gisa. Euskararekiko hesi emozional hori haustea da gure helburua, estimua izan diezaiotela, eta ikus dezatela euskara badela maitasunaren hizkuntza ere, laguntasunarena, eguneroko bizitzarena...”. Martín Camerónek haurrak ez zuen jarrera ezkorrik euskararekiko, baina hitz egiteko gaitasunik ere ez. Oriora joan ziren egun batean, euskara herri horretan komunikazio hizkuntza arrunta dela ohar zedin, eta umeak kafetegian asteroko colacaoa euskaraz eskatzea izan zen Martín Camerónen helburu xumea. Bellido Sesma umeak gaitasun handiagoa zuen, eta zinema euskaraz ikustera joan dira, jolasak ere euskaraz egin dituzte... Tutoreren batek

umea bere familiara eraman du, euskara etxeko hizkuntza ere badela erakusteko, edo kuadrillarekin euskaraz aritzen dela erakutsi dio...

Ikastetxearekin harremanetan

SOS Arrazakeriak ikastetxeei azaltzen die proiektua, eta parte hartzea ongi etorriko zaien umeak hautatzen ditu ikastetxeak. Hautatutako ume hauek eta gurasoek nahi badute, Urretxindorra proiektuan parte hartzen hasten dira. Manzanik adierazi duenez, “denei garbi uzten diegu ez dela jarduera akademiko bat, helburua ez dela eskolako emaitzak hobetzea... baina eskolak ere baloratu behar dituela emaitza akademikoak ez diren edukiak eta batzuetan emozioei, harremanei eta egoera pertsonalei lotutako faktoreek eragina dutela emaitza akademikoetan. Eskolek ikusten dute umeak hobeto daudela, irekiago, harreman hobekak dituztela... Funtsean, autoestimua hobetzen zaiela eta batzuetan horrek eragina duela emaitza akademikoan, ume hauetako asko ez baitaibiltza aise eskolan”.

Neurtuta, hazten doan proiektua

Zazpi bikotek hasi zuten Urretxindorra proiektua duela hiru ikasturte, Donostian eta Erreterian. Hurrengo ikasturtean, 14 bikotera igaro ziren, eta bi herriei Hernani gehitu zitzaizkien. Aurtengo ikasturtean 28 bikotera hazi da kopurua, hiru herri hauetan. Hurrengo ikasturterako, 35 bikotera iristeko aukera du SOS Arrazakeriak, eta hiru herri hauek gain Lasarte, Tolosa eta Urnietara zabaltzea. Baina Manzaniren arabera, kopuruak ere zaindu beharrekoak dira: “Agerian geratzen ari da behar erreal bati erantzuna ematen ari garela, baina argi dugu helburua ez dela kuantitatiboki proiektua haztea. Ezezkoa esan behar izan diegu ikastetxe batzuei, pertsonen arteko harremanez ari garela eta harremanak zaindu egin behar direlako. Ezin dira bikote pila bat sortu ondoren ez badugu denborarik harreman horietan sortzen diren arazoak lantzeko”.

Tutore izateko nola eman izena

Irailera arte dago zabalik hurrengo ikasturtean tutore modura izena emateko epea. Deitu dezakezu 943 321811 zenbakira edo idatzi urretxindorraproiektua@gmail.com-era. Euskaraz dakitenei lehentasuna ematen diete. ■

Hedd Wyn

GERRAK ISILDUTAKO POETA GALESTARRA

Hedd Wyn olerkaria Galesko hizkuntzaren eta tradizioen sinbolo ezaguna da, haren heriotzatik ehun urte igarota ere. Uztailez hil zuten Lehen Mundu Gerran.



Dabi Piedra

Galesezko literaturaren ordezkari nagusietako bat hil zuteneko mendeurrena gogoratuko dute uztailaren azken egunean. Ellis Humphrey Evansek, ezizenez Hedd Wyn, Flandriako lokatzetan aurkitu zuen heriotza Lehen Mundu Gerran. Bere olerkietan sorterriaz eta bakeaz idatzi zuen baina, halabeharrez, etxetik urrun eta gerra bete-betean hil zen. Aste batzuk geroago, lubakietatik bidalitako poema batek Galesko lehiaketarik ospe-tsuen irabazi zuen.

Yr Ysgwrn izeneko etxaldea Hedd Wynen historia tragikoaren lekuko isila izan zen. Trawsfynydd herritik hurbil dago etxe bakarti hori, Gales iparraldeko mendi malkartsuen magalean. Umea zenetik gerrara joan behar izan zuen arte, han bizi izan zen Ellis Humphrey Evans. Baserri giroan hazi eta hezi zen, gales hutsean bizi zen gizarte tradizionalean. Gehienbat, sorterraren eta herrikideen ingurukoa da haren poesia. Herri zeltetan mendez mende igaro den bardoen tradizioan murgildu zen, eta beste bardo baten iradokizunari kasu eginez Hedd Wyn ezizena hartu zuen. Bake bedeinkatua edo bake zuria esan nahi du.

Izan ere, bakezalea zen, guztiz, Hedd Wyn. “Kristaua zen eta, zentzu hertsian kontzientzia eragozlea ez bazen ere, ez zuen armarik hartu nahi ez beste inor

hil nahi”, dio Naomi Jonesek. Idazlearen eta Yr Ysgwrn etxaldearen ondarea zaintzeaz arduratzen den Eryri Natur Parkeko Agintaritzako hezkuntza eta komunikazio burua da Jones.

Ingalaterrako eta Galesko poeta handien lanak irakurrita aberastu zuen bere estiloa Hedd Wyn gazteak eta hamai-ka urte zituenarako idatzia omen zuen lehenengo olerkia. Naomi Jonesen esanetan, Hedd Wyn autore erromantikoa zen eta maiz erabiltzen zituen naturako irudiak. *Eisteddfod* izeneko literatur lehiaketetan hainbat sari eman zizkioten. Erdi Arotik antolatzen dira halako topaketak eta Galesko hizkuntzaren eta kulturaren ezaugarri nagusietako bat dira. Nolanahi ere, *Eisteddfod Nagusia*, urteroko hitzordu arranditsua, artean irabazi gabe zeukan 1917ko uda tragiko hura iritsi zenean.

Baserri lana eta olerkigintza ziren Hedd Wynen bizimoduaren ardatzak, Gerra Handirako deia ate joka etorri zitzaion arte. Flandriako lubaki amaiga-beetara joatea egokitu zitzaion orain dela ehun urteko uztail euritsu eta ilun hartan. 1917ko literatur lehiaketarako aste gutxi batzuk baino ez ziren falta eta frentean bertan idatzitako *Yr Arwr* (Heroia) olerkia bidali zuen lehiaketara. “Lurrean bakea eskatzen duen poema da”, azaldu du Naomi Jonesek. Uztaila-

ren 31ko goizean, Pilckem Ridgeko baitailaren lehenengo egunean, bala batek bete-betean jo zuen sabelean. 30 urte zituen.

Gerrak Galesko idazle handienetako bati emandako zorigaiztoko amaieraren berri zabaldu baino lehen, irailaren 6an, *Eisteddfod Nagusia* antolatu zuten Ingalaterrako Birkehnead hirian. Lehiaketako olerkirik onenaren egileari egur landuzko aulkia oparitzeko ohitura dute eta orduko hartan ere prest zuten Eugeen Vanfleteren maisu flandiarrek egindako aulki ederra. Epaimahaiburuak iragarri zuen Hedd Wyn zela irabazlea baina jaialdiko Druida Nagusiak han bildutakoei azaldu zien idazlea sei aste lehenago hil zutela gerran. Irabazlearen aulkia oihal beltz batez estali zuten eta harrezkero *Y Gadair Ddu* esaten diote, alegia Aulki Beltza.

Yr Ysgwrn etxaldera eraman zuten aulkia eta gaur egun han dago oraindik. “Berehala jendea etortzen hasi zen Galesko bazter guztietatik, baita kanpotik ere, aulkia ikustera eta familiari dolu-minak ematera”, azaldu du Naomi Jonesek. “Aulki Beltza sinbolo bihurtu zen, ez Hedd Wynena bakarrik, baita Lehen Mundu Gerran hil ziren 40.000 galestarrena ere, aulki huts hura Galesko etxe askotan geratu ziren aulki hutsen oroigarria da”.

» Atzerriko literatura
sakon ezagutu zuten
bai Hedd Wynek
baita Lauaxetak ere,
eta galesez
eta euskaraz idazteko
hautua egin zuten



1917ko irailaren 6an iragarri zuten Eisteddfod izeneko literatur lehiaketa irabazi zuela Hedd Wynek. Ez zen sari banaketara joan ordea, aste batzuk lehenago hil baitzuten gerran. Irabazleari egur landuzko aulkia oparitu ohi zioten eta Wynen heriotzaren berri jakinda oihal beltzez estali zuten. Orduraz geroztik Aulki Beltza deitzen diote eta haren jaiotetxean dago. Gerald Williams ilobak zaintzen du aulkia eta jaiotetxe berritua.

Eisteddfod Nagusia irabazi zuen Yr Arwr ez ezik, beste olerki gogoangarri ugari ondu zituen Hedd Wynek. Ingelesez ere ondo moldatzen zen arren, galesez idatzi zuen ia beti, hura baitzuen etxeko hizkuntza. Horregatik, alderdi kulturalen hutsune handia utzi zuen poetaren heriotzak, 20. mendearen hasierako idazle garrantzitsuen baitzen Galesen. Hain gazte hil ez balute, nork jakin noraino iritsiko zen.

Galesko Lauaxeta

Alde horretatik, Hedd Wynek utzitako hutsuneak Hego Euskal Herrian hogeitau urte geroago gertatutakoa gogora dakar. Euskal literaturan eta hizkuntzan izandako pizkundea itzali zuen 1936ko gerrak, kultura izan zen gerraren biktimetako bat Galesen zein Euskal Herrian. Antzekotasun handia dute, esaterako, Hedd Wynen eta Lauaxetaren ibilbideek.

Baserri giroan haziak, naturari eta sorterriari idatzi zioten Ellis Humph-

rey Evansek eta Estepan Urkiagak, bizi-modu tradizional eta nolabait idealizatua gogoan. Atzerriko literatura sakon ezagutu zuten biek, baina galesez eta euskaraz idazteko hautua egin zuten. Kristau fededunak zirela nabarmena da Hedd Wynen nahiz Lauaxetaren olerkietan. Gerra parean egokitu zitzairen eta antzeko adinarekin hil zituzten, artean gazte. Hedd Wynen heriotzaren mendeurrena gogoratuko dute Lauaxetaren fusilamenduaren 80. urteurrena oroitzen den urte berean. Esan daiteke Hedd Wyn dela Galesko Lauaxeta edo, beharbada, Lauaxeta da Euskal Herriko Hedd Wyn.

Ehun urte igarota, Galesko literaturaren eta hizkuntzaren mito handienetako bat da Hedd Wyn. Gerald Williams, poetaren iloba, Yr Ysgwrn etxaldean bizi da eta bere arbasoek egin zuten bezala, bisitari guztiei ongietorria egiten die. Ez zuen osaba ezagutu, baina Hedd Wynen eta Aulki Beltzaren inguruko pasadizo guztiak dakizki. "Etxean Ellis deitzen

zioten eta Gales guztian ospetsua izan arren gurasoek beste seme-alaben pareko tratua ematen zioten", kontatu digu Williamsek. "Poesia bere pasioa zen, berandura arte egoten zen idazten".

Eryri Parke Naturaleko agintaritzak Yr Ysgwrn erosi zuen 2012an eta goitik behera berritu du etxaldea, Hedd Wynen ondarea belaunaldiz belaunaldi transmititzen segitzeko. Babestutako ondarearen lege-babesa duen etxe horretako pieza baliotsuena Aulki Beltza da, hori ere kontu handiz zaharberritua. Gerald Williams "harro" dago bisitarien osabaren berri eman ahal izateaz. "Aitona-amonek, Hedd Wynen gurasoek alegia, pozez hartzen zuten jendea beti eta nik ere gozatu egiten dut, batez ere gazteen jakin-mina antzematen dudanean". Osabaren pasadizoak kontatzeaz gain, mezu garbi bat ematen die Williamsek belaunaldi gazteei: "Yr Ysgwrnen ikusten dute gerra suntsitzailea dela eta espero dut horrek mundu hobe bat eraikitzeko gogo sortuko diela". ■

“BBVA bezalako bankuek eskuak zikinduta dituzte”

Rafael Gonzales ekintzaileak (Minneapolis, AEB) erro indigenak ditu –Puerto Ricokoak ere bai–. Horrek eraman zuen, besteren artean, bere hiritik autoz sei ordutara zeuden NoDAPL erresistentzia kanpamentuetara. Herri indigenek eta ekologistek hilabete luzez Dakota Access Pipeline oliobidearen kontra egin zuten Standing Rockeko kanpamentuetan. AEBetako gobernuak kanpamentuak suntsitu eta oliobidea eraiki ostean, Europan barrena itzulia egin du Gonzalesek.



Lukas Barandiaran San Roman
@barandiluk

Zer da NoDAPL protesta?

Hasiera batean DAPL oliobidea Bismarcken zehar egin nahi izan zuten, Bismarck Ipar Dakotako hiriburua da, eta batez ere biztanleria zuria du. Biztanleak kexu agertu ziren, ez zuten nahi oliobidea handik pasatzerik. Ondorioz, Dakota Access proiektuaren kudeatzaileek ibilbidea aldatu zuten, 1851n Laramie gotorlekuan AEBetako Gobernuak eta jatorrizko herriek egin-dako hitzarmenak aitortutako dakota, lakota eta nakota herrien lurralde erre-serbetara eramanez oliobidea. Standing Rockeko komunitateak Missouri ibaiaren beharra dauka. Petrolio isurketa batek ibaiko ura kutsa dezake, eta ibaian behera 18 milioi pertsonaren ura hondatu. Oliobideak lekuko ekosistema arriskuan jarri du, baina horrez gain, erregai fosilen ustiaketa erraztuz, klima aldaketa areagotzen ari da. Oliobidearen kontrako mugimendua Standing Rockeko gazte eta emakumeek hasi zuten, haien gorputzak eraikuntza makineriaren aurrean jarrita; halako ekintza zuzen ez-bortitza erabili dugu batez ere.

Mundu osoko komunikabideen arreta erakarri duzue.

Lehenengo kanpamentua *Sacred Stone* izenekoa zen, eta sioux tribuaren erre-serban zegoen. Kanpamentua hazi eta 1851ko hitzarmeneko lurretara zabal-

du zen. Army Corp Engineers, AEBetako armadaren ingeniari-tza agentziak aldarrikatu zuen bereak zirela lur horiek, baina AEBetako Konstituzioak bermatzen du lur horiek aurrez aipatutako herrienak direla. Hasiera batean borroka ez zen bortitza izan Poliziak ez zuelako erantzuteko baliabiderik. Armadaren Guardia Nazionale eta AEBetako beste eskualdeetako Poliziak deitu zituzten, baita mertzenario profesionalak kontratatu ere. Horien artean TigerSwan bezalako enpresa “antiterroristak” zeuden, Ekialde Hurbilean AEBen aginduetara aritu den mertzenario enpresetako bat. Denak elkarlanean jardun dira, Dakota Access oliobidea eta interes korporatiboak defendatzen.

Nolako ekintza zuzen ez-bortitza erabili duzue?

Gure estrateia nagusia izan da lanak gerarazteko. 2016ko abuztuan hasi genuen. Lehenik eta behin oliobidearen lanak non hasi behar zituzten ikertu genuen, eta leku horretara mobilizazioak antolatu. Gure gorputzak makinaren aurrean jarritz, Dakota Access proiektuari milioika dolarreko galera eragin genion. Denbora igaro ahala geroz eta segurtasun neurri handiagoak hartzen hasi ziren eta Polizia bortizkeriarekin eta errepresioarekin erantzuten hasi zen: gomazko pilotak,

granada nahasgarriak, entzumena kaltetzen duten armak, borrak eta taser pistolak, besteren artean. Aipatutako arma ugari, Poliziaren arabera, ez omen dira hilgarriak, baina esaterako, ur-kanoiak erabili dituzte kanpoan zeropeko tenperaturak zirela, eta horrek hipotermia arriskua eragin zigun, norbait hil zezaketen erraz. Poliziaren errepresioa gogortu zen, baina jende mordoak eutsi zion. Tentsio eta bortizkeria egoera horrek kanpamentuaren amaierara arte iraun zuen.

Zergatik erabili zituen mertzenarioak AEBetako Gobernuak?

Ipar Dakotako Gobernua ez zegoen prest halako erresistentziari aurre egiteko, baina AEBetako Gobernuaren eta Dakota Access proiektuaren arteko elkarlan zuzena zegoen. Proiektuaren atzean dauden enpresek, Enbridge eta Energy Transfer Partners-ek besteren artean, diru asko daukate, botere nahikoa dute mertzenario enpresak kontratatzeke, eta mertzenarioak edozein molde erabiltzeko prest daude. TigerSwan bezalako taldeak infiltratu ziren eta berandu arte ez genuen horren berri izan. Ekintzaile ugari fitxatu eta zelatatu zituzten. Ez dut uste Ipar Dakotako Poliziak hori egiteko baliabiderik duenik, ez dakite halako kanpamentu handi bati aurre egiten.



» “Ziur nago geroz eta jende gehiagok borrokatu faxismo horren kontra, orduan eta mertzenario gehiago erabiliko dituztela”

» “Epaitegietara joateak ez du inoiz balio izan jatorrizko herrientzat”

» “BBVAn kontu bat duena gure jendearen eta ama-lurraren kontrako genozidioa bultzatzen ari da”

ARGAZKIA: DANI BLANCO



TigerSwan Trumpen kontrako protestak erreprimitzeko ere erabiltzen hasi da AEBetako Gobernua. Gainontzeko protesta sozialen aurka ere mertzenarioak erabiliko dituztela uste duzu?

Bai, uste dut oraingo administrazioak areagotuko duela. NoDAPL beste borroka askoren artean bat gehiago da. Klima aldaketaren kontrako borroka mugatzen du, xenofobiaren, homofobiaren eta sexismoaren aurkako ekintzaileen kontra ere egiten du AEBeko administrazioak. Gizon txuri aberatsei boterea ematen jarraitzen dute, eta ondorioz kolektibo ugari administrazio horren faxismoaren kontra egiten du. Geroz eta jende gehiagok borrokatu, orduan eta mertzenario gehiago erabiliko dituztela mugimenduen kontra egiteko.

Zer harreman du hasierako Dakota Access proiektuaren lekualdatzeak Gobernuak jatorrizko herriei ematen dien tratuarekin?

Oliobidea gure lurretatik igaroaraztearekin gu jatorrizko herri gisa suntsitu nahi gaitu gobernua. Gaur egungo arrazismoaren, ingurumen arrazismoaren adibide argia da. Gobernuak eta korporazioek urte luzez ustiatu dituzte lur hauek, horren adibide dira indusketak eta uranio erauzteak. Jarduera horiekin lehen kaltetuak jatorrizko herriak izan dira.

Obamak DAPL proiektua geldiarazi zuen 2016ko udazkenean, baina Trumppek berriro jarri zuen indarrean.

Obamaren Gobernuak ez zuen proiektua geldiarazi, moteldu egin zuen soilik. Army Corp Engineersek abenduaren 4an esan zuen ez ziola baimenik eman go Dakota Access proiektuari Missouri ibaiaren azpian zulaketak egiteko; ingurumen eraginari buruzko txostena egitea ezarri zieten baldintzatzat proiektuarekin jarraitu ahal izateko. Dena den, Obamaren Gobernuak askoz ere gehiago egin zezakeen proiektua gelditzeko, baina ez dut uste Obamak benetako asmorik zuenik jatorrizko herriak babesteko, Dakota Accessek zulaketak egiten jarraitu baitzuen.

Zergatik jarri zuen berriro martxan proiektua Trumppek?

Trump oliobidearen proiektua bera finantzatzeko ari delako, eta aldi berean, Energy Transfer Partners, Dakota Access eraikitzen ari den enpresak Trumpen hauteskunde kanpaina finantzatu zuelako. Trumpen Gobernua eta Dakota Access elkarlan koordinatuan aberrastan ari dira.

Izango al du ondorio judizialik guzti honen?

Standing Rockek prozesu judiziala ireki du oliobidea legez kontra eraikitzeagatik. 1851n hitzartutako lurretan eraikei dute, beraz, AEBetako konstituzioa urratu dute. Standing Rockek eskubide osoa du epaitegietan borroka egiteko, baina uste dut epaitegietan ez dela ezer lortuko. Epaitegietara joateak ez du inoiz balio izan jatorrizko herrien-

tzat. Borrokaren alderdi guztiak dira garrantzitsuak, baina nire ustez estrategia onena desobedientzia zibila da, ekintza zuzen ez-bortitza, gure gorputzak oliobidearen aurrean jartzea.

Desibertsio kanpaina bat ere planteatu duzue.

Oliobidearen proiektua finantzatzeko ari diren bankuei presio egiten diegu. Publikoki lotsarazten ditugu oliobide bat eraiki eta jatorrizko herrien genozidioa finantzatzeko. Bankuak azken 500 urteetan eta AEBetako sorreratik jasan dugun zapalkuntza berresten ari dira proiektu horien finantziarioekin; ingurumen arrazismoa bultzatzen dute banku horiek, gure lur sakratuen suntsipena finantzatzeko ari baitira. Inbertsioak atzera botatzea galdegiten dugu.

Bada banku horien artean bat, BBVA, "hemengoa" dena.

BBVAk 120 milioi dolar inbertitu ditu Standing Rockeko proiektuan. Hori da gu orain hemen egotearen arrazoietakoa bat. Salatu nahi dugu BBVA eta Credit Suisse banku europarrak milaka milioi dolar inbertitzen ari direla Dakota Access proiektuan. Europako banku horiek kolonizazioari eta herri indigenen zapalkuntzari jarraipena ematen diote. Nekatuta gaude eta ez dugu gehiago jasango, borrokan eta haiek lotsarazten jarraituko dugu.

Zer esan nahi diozu bertako jendeari?

BBVAk kontu bat baldin badute gure jendearen eta ama-lurraren kontrako genozidioa bultzatzen ari direla. Lehen pausoa kontua ixtea da. BBVA bezalako bankuek eskuak zikinduta dauzkate, eta jendea horretaz ohartarazi eta esnarazi behar dugu.

Esan duzu borrokak jarraituko duela, nola?

Jatorrizko herri bezala pentsatzen dugu merezi duela gazteei mundu atsegina gozatu. Desinbertsio kanpainaren inguruan mugitzen jarraituko dugu, bankuak seinalatzen eta markatzen. Adibidez, urrian beste itzuli bat egingo dugu Europatik. Erresistentzia jarraitzeko ikuspegia pentsatzen ari gara, badira oliobideen kontrako bestelako borrokak, eta baliteke horietan ikustea hemendik gutxira, baina ezin dut horretaz hitz egin. ■

ERDI AROKO KONSTITUZIO AFRIKARRA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Afrika, XII. mendea. Ghanako Inperioak gainbehera egin zuen almorabideen etengabeko inbasioen eraginez. Orduan, sossoen errege Sumanguru Kantek Ghanako hiriburu zaharra hartu zuen, botere hutsunea baliatuz. Eta lurraldeak konkistatzen jarraitu zuen Mandeneraino, mandingen lurralderaino.

1235ean Sundiata Keita mandingen printze erbesteratuak koalizio bat osatu zuen inguruko erresuma txikiekin sossoei aurre egiteko. Eta urte hartan bertan mandingek Koulikoroko gatazka irabazi eta Maliko Inperio boteretsua sortu zuten, Sundiata Keita mansa (enperadore) izendatuta.

Garaipenaren ondoren, lurralde zabala antolatu eta lege-multzoa sortu behar zen. Hala, enperadorea eta jakintzuen kontseilua Kurukan Fugan bildu ziren 1236an Mandeneko Gutuna idazteko; munduko konstituzio zaharrenetakotzat jo daiteke. Hitzaurrea eta 44 artikulua dauzka gutunak eta besteak beste, aniztasunean oinarritutako bake soziala, hezkuntzarako eskubidea, elikadura segurtasuna, esklabotzaren abolizioa eta adierazpen askatasuna jasotzen ditu. Ziurrenik praktikan kontraesanak eragin zituen legeon aplikazioak; XVI. mendean inperioak gainbehera egin zuen arte, Maliko mansak munduko pertsonarik aberatsenetakotzat zeuzkaten eta hori ez da ondo ezkontzen berdintasunarekin. Hala ere,



Maliko Inperioa, XIV. mendeko Afrikako mapa batean. Tronuan eserita dagoena Musa I.a (1280-1337) enperadorea da.

gutunak askoz berriagoak diruditen kontuak jasotzen ditu.


“Pertsona guztiek dute bizitzeko eskubidea. Ez dago besteen gainetik dagoen pertsonarik”. Eta emakumeak barne hartzen zituen baieztapen horrek: “Ez itzazu emakumeak iraindu, gure amak dira. Gure kudeaketa lan guztietan parte hartu behar dute”. Baita esklaboak ere: “Hemendik aurrera inork ez dio hurkoari mozala ahoan jarriko merkatuan saltzeko. Esklabotzaren oinarria gaur bertan itzaliko da”.

Esan bezala, hezkuntza eskubidea jaso zuen testuak: “Haurren heziketa gizarte osoaren ardura da. Guztiok zuzendu eta

zaindu behar ditugu haurrak”. Eta adierazpen askatasuna ere bai: “Esan nahi duena esateari esker bizi da espirtua”.

Ingurumena hizpide zuten legeek halaber: “Basoak zaindu behar dira guztion zorionerako. Zuhaitza bati su eman aurretik, jaso burua eta begiratu zuhaitzen adaburuei”. Dibortzioa legezkoa zen eta “ezkontideetako batek eskatuta” ematen zen. Eta lapurretaren kontzeptu interesgarria zuten: “Jateko beharra asetzea ez da lapurreta, gosea arintzeko behar adina soilik hartzen bada”.

Bitartean, Europan, mende mordoa falta zen giza eskubideen aldarrikapena “asmatzeko”. ■



PAESTUM MUSEO ARKEOLOGIKOA

Sibarisko mokofinak

Akeoek, K.a 720. urte inguruan, Magna Greziako kolonia nagusietakoa fundatu zuten Italiako botaren zolan: Sibaris. Miletorekin eta Etruriarekin merkataritza bizian hasi ziren berehala, eta Tirrenoko kostalderaino zabalduko zuten beren eragina. Oparotasun hark sibiraren izaera taxutu zuen: lana gutxiesten zuten, eta luxua maite; errementariak eta arotzak

debekatu zituzten, lan giroa zabalduko zuten beldur; oilarrak ere galarazita omen zeuden, ez baitzuten goiz iratzartzeko beharrik; eta ilea urrezko lokarritz lotzen omen zuten. Hiria K.a. 510. urtean suntsitu zuten, eta Kratis ibaiaren bidea aldatu zuten urak eta lohiak hiria estal zezaten. Baina “sibarita” mokofinaren sinonimo da orduz geroztik. ■

Basoa jan



TESTUA ETA ARGAZKIA

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Basoa behera, basoa gora. Gure etorkizuneko ingurumen politikaren ardatza beharko lukeenez, suak kiskaltzen ez duen artean ez gara gogoratzen. Orain bai, Portugalgo zorigaiztoko sutearen ondoren, denon ahotan basoa. Eukalipto urdina dela (*Eucalyptus globulus*), pinu beltza dela (*Pinus radiata*), bertako edo kanpoko espezieak direla... Badaukagu bai, zer hitz egin, proposatu, elkar hartu, adostu eta bideratu basoaren etorkizunaz. Baina suak pasatako lurrraren azala berritu eta birsortzen den bezala, suaren puria pasatakoan egin beharko da.

Purialdian bada, baita ere, basoari begiratzeko era berri bat. "Baso jangarri" deitzen da azken urte hauetan hedatzen ari den nekazaritza ikuspegi berri bat. Ia atzo arte basoa izan da gure bizimoduaren oinarria. Bertatik eskuratu izan dugu energia (egurra, adarra, ikatza, iduria...), ura, materialetarako zura, erritoei eta espiritualitateari eusteko landareak eta usteak, inaurkintetarako azpigaia (zarba, garo, orbel...), aziendaarantzako larreak eta bazkak, sendagaiak (belar, sustrai...) eta geuretzako jakiak

(perretxikoak, landareak, animaliak, fruituak...).

Jakiak sortzeko erabilpen horri helduta, etorkizunean jaki ugari sortuko duten basoak sortzeko asmotan dabil jende mordoxka bat. Nola diseinatu, sortu eta mantendu baso jangarriak? Bi baldintza: non biziko da baso hori eta zer bildu nahiko dugu gero. Horien arabera egiten dira moldaketak eta landaketak. Izan ere, bada zer landatu. Haste-ko, zuhaitzak eta arbolak etortzen dira burura: fruitu arbola ezagunak, baina baita ezezagunak edo aspaldi bazterrera utzita ditugunak ere: otsolizarra, gurbea, basagurbea, hostazuria, gurbizta, sagarmina, maaltza; ezkurak ematen dituzten haritz, ametz, erkametz, arte, artelatz eta abarrak; pinaziak ematen dituzten pinuak, pagoa... Zuhaiak ere badira emaile oparo askoak: laharra, endalaha-



"Baso jangarri" esaten zaio azken urteotan hedatuz doan nekazaritza ikuspegi berri bati. Argazkian, arakatza.

rra, ahabia, mugurdia, arakatza, arkakarratsa, erramua...

Jaki sortzaile izateaz gain, beste erabilpenetan pentsatuz basoa sortzen duenak asmatuko duela iruditzen zait: aisialdia, didaktika, etnobotanika, paisaia kulturala... ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Jakin nahi nuke zer ari den gertatzen gure inguruan ezpelarekin eta zer irtenbide proposatzen duzun.

Luis Erice (Hernani)

Kaixo Luis. Ezpelak (*Buxus sempervirens*) bi arazo nagusi ditu gurean: gaitza (*Cylindrocla-*



Ezpela.

MSF-CC BY SA

dium buxicola) eta harra (*Cydalis perspectalis*). Azken aldi honetan harra dabil ugari eta oso txarra da, hostoak jaten ditu eta gero adarren azala, landarea erabat soildu arte. Hosto batzuetan harizko habitxo modukoak aurkituko dituzu.

Ahal duzun azkarren tratamendua egiten hasi: astero-astero egin behar da, *Bacillus thuringiensis* izena duen botika bat erabilita. Harraren beraren gaitz bat da eta ez landareei ez guri ez lurrari ez digu kalterik egiten. Nekazaritza ekologikoan erabiltzen da. Xaboiarekin nahastuta bota behar da, ahal izanez gero xaboi potasikoa. Eta ez ahaztu, astero-astero, landarea alde guztietatik ondo bustiz.

Elikadura burujabetzaren aldarria Nafarroako Parlamentura



Garazi Zabaleta
@tirikittrann



Ekainaren 13an bukatu zen Nafarroako Parlamentuan Mugarik Gabe Nafarroak, Mundubatek eta IPES fundazioak elkar-lanean abiatutako “Gobernantza lokal eta eraldatzailea elikadura burujabetza eta genero berdintasun gakoekin” prozesuari. Herrialdeko bost merindeetan saioak egin dituzte sei hilabetez: emakume ekoizleak, instituzioetako partaideak eta gizarte mugimenduetako eragileak aritu dira herrialdeko nekazaritzaren eta elikadura gobernantzen inguruan hausnarrean eta eztabaidan. Ekaineko azken saio horretan, euren ondorioak eta eskakizunak parlamentura eraman dituzte tokiko ekoizleek.

Emakume ekoizleen bozgorailu
Parlamentuan, merindeetako saioe-

tan ateratakoarekin osatutako *Emakume ekoizleak eta elikadura burujabetza Nafarroan, generoaren ikuspegitik* dokumentua aurkeztu zuen Esther Monterok.

Jarraian, emakume ekoizleen izenean Gotzone Sestorainek hartu zuen hitza. Gizartearen eta administrazioaren partetik beren lanaren aitorpen eza kritikatu zuen ekoizleak, eta salatu zuen administrazioak askotan lagundu baino beren egoera zailtzen duela: burokrasia konplexuen bidez eta diru-laguntzen menpeko bihurtuz nekazari txikiak ito dituzte eta horietako asko lanbidea uztera bultzatu: “Eredu produktibo neoliberal eta patriarkal baten menpeko gara, jendea nekazaritza eremutik kanporatzen duena eta emakumeak baz-

tertzen dituen”. Instituzioei eskaera zuzena egin zieten emakume ekoizleek: egin dezala elikadura burujabetzaren eta sozialki, ekologikoki eta ekonomikoki jasangarria den nekazaritza eredu baten aldeko apustua. Hori martxan jartzeko proposamen zehatzak eraman zituzten, sei puntutan banatuta: haziak, lurra, diru-laguntza publikoak, salmenta zuzena eta zirkuitu motzeko komertzializazioa, hezkuntza eta zerbitzu publikoak.

Bestelako gobernantza ereduak

Elikadura gobernantzen inguruan martxan dauden hainbat proiektu aurkeztu zituzten saioaren bigarren zatian zonalde bakoitzeko ordezkariak, gauzak aldatzeko borondatea adieraziz. ■



GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

JATORDUAK BILBOKO KAFE ANTZOKIAN

3

Kafe Antzokia, euskaldunon plaza eta bilgunea

Denborak ez du etenik eta, ohartzerako, hogeita bat urte joan dira Kafe Antzokiak atea estreinakoz zabaldu zituen geroztik. Euskaratik eta euskararako egitasmo berria zen orduan, eremu deseuskaldundu batean txertatu behar zena eta Bilbon euskarari eta euskal kulturari duintasuna ekarri nahi ziena. Zorionez, herritarrek emandako erantzunak berretsi ez ezik, gaititu ere egin zituen antolatzaileen asmoak eta Kafe Antzokiak urteotan bere eginkizun garrantzitsua izan du: euskaldun guztion bilgunea, euskal kulturaren plaza eta beste herri eta kulturen agertokia izatea. Kafe Antzokian era askotako giro, ekitaldi eta jarduerak izan ohi dira, egunez zein gauez: liburu eta disko aurkezpenak, kontzertuak, ekitaldi pribatuak, ordu txikitako gau-giroa... baita bazkari gozoak ere, astelehenetik larunbatera, ARGIAko irakurle batzuek dastatu ahal izango dituztenak.



NAGORE IRAOLA

Eragile hau hobeto ezagutzeko:



BILBOKO KAFE ANTZOKIA

www.kafeantzokia.eus

Tel.: (+34) 944244625

#kultura
#plaza
#agertokia
#bilgunea

Uztaileko sariak

1



**Siroka taldearen
"Ura" diskoa**
5 disko

2



"Beduino bat Karibe aldean"
liburua
4 ale

3



**Bilboko Kafe Antzokirako
sarrerak**
Bi pertsonarentzako bina sarrera

4



**Ekologistak Martxan
"Energia Trantsizioak" liburua**
3 ale

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.

Garesko liburutegia ARGIA zalea egin da



@GARESKO_AUZALAN



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Lana erraztuta ematen didate niri. Biderik zailena eginda. Zein eroso den ondokoak egindako esfortzu guztiari azken ukitu goxoa ematea, bidea leundua denean. “Milesker” hitzarekin elkarrizketa hastea zein samurra den. Tonu horretan hitz egin dut Garesko liburutegi publikoko Eva arduradunarekin. ARGIAko harpidedun egin berri dira.

Harpidedun berri guztiei egiten dietan galdera da, baina, zergatik ARGIA? Bakoitzak ematen ditu oso argudio pertsonalak, pertsonak adina argudio. Liburutegi publiko bat izanik, kasu honetan ez da hautu pertsonal bat, gehiago da herriari zerbitzurik ahalik eta osatuena emateko intentzioa. Honela erantzun du Evak: “Liburutegi publikoak hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu eta euskaraz dauden liburuak, aldizkariak eta materialak erosita egin dezakegu pixkanaka normalizazio honetara bidea”. Garesko herriari gaurkotasunaren informazioa eskaini nahi dio, euskaraz, liburutegiak; “euskaldun petoak ase, eta euskaldun berriei hizkuntza ikasi eta gozatzeko beste aukera batzuk eman”.

Lanketa berezia egiten ari da ARGIA Hego Euskal Herriko liburutegi publikoetan, helburu garbi batekin: euskal hedabideok ahalik eta gune publiko gehienetan gure presentzia bermatzea. Horren fruitu da harpidetza berri hau, eta bide horretan jarraitzeko asmoa dugu.

Euskarazko beste egunkari edo aldizkariaren bat eskaintzen ote duten galdetuta, istorio polita kontatzeko aprobe txatu du Evak. *Berria* egunkaria izaten dute egunero apalean (“eta *Aizu!* aldizkaria ere bai”, azpimarratu dit). Iruñeko lagun baten telefono deiaren emaitza da: *Berriako* harpidedun dela, baina astean zehar ezin izaten duela jaso eta irakurri, eta oparia egin nahi ziola esan ez zion bada? Orain gutxi irakurri dut hor zehar militantzia bukatzen ari dela, geroz eta geurekoiagoak garela, elkartasuna pikutara doala... Lagun honek Garesko herriari egindako keinu hau militantzia, elkartasuna eta zaintza ez bada esango didazue zer den.

Plazer bat da horrelako altxor berriak ARGIAra batzea. ■



ARGIAko kide egiterakoan eman dituzten arrazoiak

“Artikulu bikainak sortzen dituzue, askotariko gaiak jorratuz eta ikuspuntu interesgarria jarritz. Zuen lana, gainera, euskaraz egiten duzue. Zer gehiago eska daiteke?”

Miren Tere Aboitiz
ARGIAkoa

Olatukoop sarearen Manifestu interkooperatibista

Uztailaren 1ean, kooperatiben nazioarteko eguna izanik, ekonomia sozial eraldatzailea sustatzen duen Olatukoop sareko kideok, manifestu bat egin genuen publiko. Hona pasarte batzuk:

“Oparotasuna, bai, baina denontzat. Sistema kapitalistaren metatze prozesuen aurrean, sortzen dugun aberastasuna egoki banatzean eraikitzen den oparotasuna proposatzen dugu; inor atzean utzi gabe. Horregatik, lana gure eskuetan hartu eta antolatzea erabaki dugunok, pertsonen arteko esplotazioa arbuiztatu dugunok, ezin dugu desberdintasunen sorreran eta esplotazioan oinarritutako sistema honek baztertzen dituenak albo batera utzi.

Uztaila, uztia jasotzen den garaia da, oparotasun garaia, beraz. Aurten, eta hemendik aurrera urtero, uztailaren 1ean, gurekin batera, kooperatibek duten izaera eraldatzailea eta oparotasuna ospatzera gonbidatzen zaituztegu. Denontzat nahi dugun oparotasun hori eraikitzen ari garela ospatzeak, egiazko bihurtzen baitu bidea bera; ospatzen ez dena, ez baita existitzen!

Oparotasuna denontzat!”

Ainara LeGardon

“SGAEk bazkide ez direnen izenean kobratuz 17,5 milioi euro irabazi zituen 2015ean”

Egile eskubideen marasma sarea modu ulerterrazean landu dute Ainara LeGardon musikariak (Bilbo, 1976) eta David García Aristegui jabetza intelektualean adituak (Madril, 1974) Consonnirekin argitaratu berri duten *SGAE: el monopolio en decadencia* (SGAE: monopolioaren dekadentzia) liburuan. “Gurpilaren” auziarekin lotuta SGAEko hemezortzi bazkide atxilotu berritan ekin diote aurkezpen birari. Kultur ekoizpen eta distribuzioak aldatzen ari diren garaiotan ezinbesteko ekarpena da beraien lana.



Xalba Ramirez
@xalbaram

SGAeri buruzko liburu bat ateratzeko bi urte baino gehiagoko ikerketa egin duzue. Hain zaila al da nola funtzionatzen duen ulertzea? Zergatik?

Berez bi urte iraun duena idazketa prozesua izan da, baina ikerketa aurreko lan batzuekin batera hasi genuen, Daviden *Por qué Marx no habló de copyright?* (Marxek zergatik ez zuen copyright-az hitz egin?, Enclave, 2014) edo nik argitaratutako *Otro modelo es posible* (Beste eredu bat posible da) lan akademikoa. Liburu hau duela lau urte hasi zela esan dezakegu beraz.

Jabetza intelektualaren mundu korapilatsua ulertzea zaila da, eta are zailagoa SGAEk ordezkatzeko duen kudeaketa eredua ulertzea. Antón Reixak, entitatearen zuzendari ohiak, gogoeta handi bat utzi zigun libururako elkarrizketatu genuenean: “Justua dena esplikagarria izan behar dela” esaten zigun, eta azaldu zigun SGAEko teknikariak Powerpoint bera hemezortzi aldiz jarri behar izan ziotela, telebistako diru banaketa nola egiten zen ulertzeko.

“Soilik oilarraren kukurrukuak ez ditu eskubideak pagatzen” dio SGAEk. Nola biltzen eta banatzen du dirua entitateak?

Beste liburu baten bidez erantzun ahal-ko litzaioke galdera horri. Laburtzeagatik, bazkide bati entzun nion esaldia errepikatuko dizut: SGAEk Ferrari bat bezala biltzen diru dirua, baina gurdi batek bezala banatzen du. Entitateari horren irudi txarra ekarri diona haren dirua biltzeko gosea izan da, eta aipatzen duzun eslogana horren erakusle da. SGAEk ez du gehiago jaso behar, hobeto baizik. Eta, bereziki, modu eraginkor eta egokian banatu.

Erabileragatik kobratu ostean identifikatzen ditu obrak. Eta edozeini etortzen zaion galdera da: orduan nola daki bilketa hori dagokiola? Hau da Davidek esan nahi duena “lehenbizi tiro egin eta ondoren galdetu” dioenean.

Tarifak erabilgarritasunaren arabera aplikatzen direlako eta ez erabilera efektiboagatik daude kutxa beltzean horrenbeste identifikatu gabeko eskubide. Hau da, tabernari batek SGAEren errepertorioan dauden kantak erabili ahal

izateagatik pagatzen du, ez jartzeagatik. Ondoren identifikazioa ez da behar bezala egiten eta horregatik eskubideen jabeek ez zaie dagokiena iristen.

Zer gertatzen da bazkideak ez direnen izenean jasotako diruarekin? Uko egin diezaioke diru bilketa horri?

Diru bilketa egin eta bost urtera autoreek ez badute erreklamatzeko, eskubide horiek preskribitu eta entitatearen aktibo izatera pasatzen dira. Autore askok, arrazoi ugariengatik, ez dute SGAEko parte izan nahi, eta beraiei dagozkien eskubideei uko egiten diete, ezinbestean.

Paradoxikoa da, legeak derrigorrezko kudeaketa kolektiboko eskubideak daukela esaten baitu –hau da, SGAE bezalako entitateen bitartez soilik egin daitekeela–, baina entitateko bazkide izatea borondatezkoa da. Beraz, bazkide ez direnen izenean kobratu egiten da, zenbakiak loditzeko gurpil zoroa eraginez. 2015ean “identifikatzeko” geratu ziren eskubideak 17,5 milioi eurokoak izan ziren.



Ustelkeria kasuak, Kanonaren gehiegikeriak... SGAEren dekadentzia benetan gertatzen ari da ala iritzi bat besterik ez da?

Liburuan hitz egiten dugu bere monopolioaren dekadentziaz, eta hori objektiboa dela uste dugu. Tarifak ezartzerako orduan egin dituen gehiegikeriengatik isunak ezarri dizkio Merkatuen eta Konpetentziaren Espainiako Batzordeak; Europatik, bidea libre uzten zaie kudeaketa independenteko elkarteei, kudeaketa entitateen gaineko 2014/26/UE zuzentarauaren bidez; DAMA edo EKKI bezalako alternatibak sortu dira azken urteetan... asko dira arrazoiak. Baina orain, inoiz baino gehiago, SGAEk duen monopolioaz aparte, bere egituraren eta kudeaketa ereduaren ere sumatzen ari gara dekadentzia.

Gardentasun falta eta kudeaketa eredu berrietara ez egokitzea dira zuen kritika nagusiak. Zer egin daiteke?

Liburuan proposatzen ditugun gauzen artean daude, bazkideei erabakitzeke ahalmen handiagoa ematea, erabilgarritasunari dagokion tarifa sistema albo batera utzi eta erabilera efektiboari dagokion tarifak ezartzea –egun dagoen

teknologiarekin egingarria da–, “identifikatzeko” eskubideen kutxa beltzean geratzen dena dagokion jabeari helarazteko ahalegina egitea –SGAEk nori banatu ez dakien zenbatekoak, autoreak ez daudelako identifikatuak edo ez direlako entitateko bazkide–...

Zerbait ona izango du hala ere...

Noski baietz. Autoreen eskubideak kudeatu eta hauengatik kobratu ahal izateko sortu ziren kudeaketa kolektiboko entitateak. Obra musikalen kasuan, zabaltzeko daukaten gaitasunagatik, autorearentzat oso zaila da berak bakarrik egitea bere obraren jarraipena. Pentsa zer litzatekeen galdezka aritzea irratiz irratiz, tabernaz taberna, salaz sala, gure eskubideengatik. Lan hori errazteko dira beharrezkoak kudeaketa kolektiboko entitateak.

Arazoa gertatzen da autoreak eta editoreak entitate berean sartzean, interes kontrajarriak baitituzte. Orain gutxi ikusi dugu “telebistetako gurpilaren auzian” hutsune legalak daudela, desoreka handiak baimentzen dituztenak; autore eta editore gutxi batzuen aberastasuna bilatzen da, eta horrek botere politikoa dakar –SGAEen zenbat

eta gehiago sorrarazi, orduan eta bozka gehiago dituzu–.

Gauza onetara itzuliz, irabazien zati bat laguntza asistentzialetara bideratua da, difusio eta promoziorako, birak antolatzeke edo ekoizpen diskografikorako adibidez. Gainera, laguntzak eskaintzen ditu betaurreko graduatuak edo audiofonoak ordaintzeko, edo bazkideen baten etxe-kaleratzea gelditzeko.

SGAEk erreperitorio guztiengatik biltzen du, baita Creative Commons lizentziapean daudenengatik ere. Baina lizentzia horiekin autoreak dagozkion eskubideak jaso ditzake?

Gatazka argia da: SGAEk ez ditu lizentzia askeak onartzen, ezta ez-komertzialaren klausula barruan ere. Baina arazoa hori da, erabilgarritasunagatik kobratzen duenez, berak kudeatzen ez duen erreperitorioagatik kobratzen du, Creative Commons-ak erabiltzen dituzten autoreenak barne. Beraz, autoreak berari dagokion dirua jaso nahiko balu, SGAEko bazkide izan beharko luke derrigorrez, eta bistan da biak batera ezin direla egin.

Bazkideak bere erreperitorio osoa SGAEen deklaratzeko derrigortasunak



Garcia Aristeguik eta LeGardonek ikerketa sakona egin dute SGAEren inguruan liburua argitaratzeko.

RAFA RODRIGO

eta lizentzia askeak ez onartzeko jarre-
rak, oztopatu baino ez du egiten sortzai-
leek erabakiak modu askean hartu ahal
izatea.

Azken urteetan asko aldatu da musika kontsumitzeko kultura, eta gehiengoak internet bidez eta streaming plataformen bidez egiten du. Nola egiten da hemen diru bilketa?

On-line den musika industriaren or-
dainketa fluxuak bereziki konplexuak
dira. Plataformek ez dituzte eskubideen
eta *royaltien* banaketak modu argian
finkatuta. Hori bai, ekoizleei beti iristen
zaie autoreei baino gehiago.

Kulturaren Liburu Zuriak datu esan-
guratsuak eskaintzen ditu: plataforma
bateko harpidetzaren 9,99 euroetatik
soilik 0,46 bideratzen dira artistentzat.
Diskoetxeek 4,58 euro jasotzen dituzte
eta euro bakarria bideratzen da auto-
reen zatira –editore eta autoreen artean
banatzeko–.

Hori Spotify gisako plataformekin.
Datu esanguratsuena, nolana, YouTube-
ren funtzionamendua ikertzen ari
ginenean jaso genuen. SGAEren eta
YouTube-ren arteko akordio konfiden-
tzial bat dago, autoreek ezagutu ezin de-
zaketena. Beraz autoreok ezin dugu ja-
kin zenbat jasotzen duten gure lanaren
kontura. Gure iturrien arabera, SGAEren
Zuzendaritza Batzarrak ere ez ditu eza-

» “Tabernari batek SGAEren errepertorioan dauden kanta erabili ahal izateagatik pagatzen du, ez jartzeagatik. Ondoren identifikazioa ez da behar bezala egiten eta horregatik eskubideen jabeek ez zaie dagokiena iristen”

» “SGAEk duen monopolioaz aparte, bere egituraren eta kudeaketa ereduan ere sumatzen ari gara dekadentzia”

» “SGAEren eta YouTube-ren arteko akordio konfidentzial bat dago, autoreek ezagutu ezin dezaketena”

gutzen dokumentuaren edukiak, soilik Zuzendaritza Kontseiluak.

EKKIren gisako alternatibez hitz egiten duzue liburuan. Zer garapen izan dezakete?

Daukan monopolioaren kontrako borrokan beti atera da irabazle SGAE. XXI. mendeko lehen hamarkadaren hasieran eta erdialdean bi saiakera jarri ziren abian, baina ez zuten arrakastarik izan. DAMA izan zen lehena (Derechos de Autor de Medios Audiovisuales), ALMA gidoilarien sindikatuek bultzatuta. Orain berriro gertatu da EKKIren sorrerarekin Euskal Herrian.

EKKIk zein DAMAk proposatzen duten eredia SGAEren oso bestelakoa da: hasteko, “bazkide bat bozka bat” printzipioa dute –diru-bilketaren zenbatekoa alde batera utziz– eta tarifak erabilera efektiboagatik kobratzen dituzte eta ez erabilgarritasunagatik.

EKKI oso hasierako momentuan dago, mintegi informatiboak antolatzen, bazkide berriak formatzen eta erakartzen. DAMAkoak bost urte egon ziren dirua biltzen hasi aurretik, SGAEren aldetik izandako epaiketa eta presioak gaindituz. Espero dugu EKKI lehenago jarri ahal izatea funtzionatzen. Anarrik esan zigun bezala “bere abantaila da hobetzeko margen handia duela. [...] Arrakala txiki batek haitz oso ireki dezake”. ■

Chocolate Remix

“Orain, festa feminista gehienetan dantzatzeko da reggaettoa”

Politikoki perreatzeko erakutsi digunetako bat da Romina Bernardo argentinarra: “Lesbian reggaeton” kontzeptua asmatu zuen, eta musika-genero horretako kantuak sortzen ditu Chocolate Remix izenpean. Urtetan isilarazi dena ekarri nahi du dantzalekura, eta ospatu: lesbianen aukera, bizitza eta harremanak. Bermeon bildu ginen harekin, Talako kantuan kontzertua eskaini aurretik.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Txantxa gisa abiatu ei zenuen proiektu hau 2013an. Orain, ordea, disko bat ateratu duzu, eta bigarren aldiz ari zara kontzertuak ematen Europako hainbat herrialdetan. Zelan bizi izan dituzu lau urte hauek?

Harrigarria izan da, ez bainuen espero horrela gertatuko zenik, baina, egia esan, nahiko modu naturalean etorri da dena. Bestalde, nahiz eta hasieran txiste moduko bat izan, etxean grabatutako kantua internet bidez zabaltzeko eta hilabetera eskaini nuen lehen kontzertua, beraz, nahiko azkar bihurtu zen txantxa huts bat baino zerbait gehiago. Ni neu orain dela bi urte hasi nintzen kontua serio hartzen.

Zer dela-eta?

Hasieran, txantxa bat zen musikaren ikuspegitik ere: jolasean aritzen nintzen, eta ea zer ateratzen zen hortik. Tartetxo bat behar izan nuen identitate sendoago bat topatzeko. Kontzeptualki oso-oso zehaztuta zegoen proiektua hasieratik, musikaren aldetik, ordea, ez. Nik gitarra jo izan du beti: lehenengo aldiz ari nintzen ekoizten eta kantatzeko! Bilaketa moduko batean ibili nintzen, eta momentu batean, zenbait





gauza lortu nituen, zenbait irizpide bete, maila pertsonalean premiazkoak zitzaizkidanak hau proiektu musikal gisa lantzeko: soinu bat, kantatzeko modu bat...

Zure iritziz, zergatik lortu du halako arrakasta "lesbian reggaeton" honek?

Uste dut, hein batean, reggaetoiak berak duela meritua. Genero hori sinplekeriatzat eta musikalki eskastzat jotzen da, baina argi dago reggaetoiak baduela halako *flow* bat, bere-berea, eta indarra daukala beste hamaika faktore gorabehera: jendea dantzan hasten da, arreta ematen dio...

Bestalde, hainbat pertsonak ezin zuten genero horretaz gozatu hainbat arrazoi direla medio, bazegoen halako muga ia moral bat. Beraz, muga horiek eraldatuta eta gauza potenteagoak eginda, jendea engantxatu egin da.

2013. urtea, Buenos Aires hiria. Zer-nolako harremana zeukaten LGTB komunitateak eta reggaetoiak?

LGTB espazio arruntetan, hots, hain militanteak edo politizatuak ez zirenetan, reggaetoi asko jartzen zen. Espazio horietan, beste diskurtso akademiko batzuek ez zeukaten halako indarrik, eta aiseago dantzatzen eta gozatzen zen. Espazio militanteagoetan berriz, gogoan dut kontzertuak egin nituen lehenengo aldietan jendeak dantza egin nahi zuela, baina ez ziola bere buruari baimenik ematen.

Zer ote zen arbuio horren iturria?

Klase ertaineko espazio horietan, eta Buenos Aireseko klase ertaina eta Europakoa antzekoak dira, beste modu batean ulertzen dira gorputza, dantza eta beste hainbat gauza. Nire iritziz, oroz gain, reggaetoiari egotz dakizkiokeen beste diskurtso horien guztien gainera, lotsa handia zegoen. Nik han ikusten nituen denak mugitzeko gogoz, baina ez zitzaien posible iruditzen, ezta milioi bat urtean ere, lau hankan jarri eta dantzan hastea. Uste dut horrek zerikusi handiagoa zeukala beste kon-

tu batzuekin: moralarekin, egokitzen jotzen denarekin, zer den *cool* eta zer ez...

Egoera aldatu egin da, ezta?

Bai, hain justu ere, orain halako ikono bat bihurtu da reggaetoi feminismoaren barruan, hainbat diskurtsoren ondorioz. Besteak beste, June Fernandezek esandakoa oso potentea izan zen. Hasieran arbuizatzen zen, baina mugimendu horren guztiaren ondoren gogo biziz hartu zen eta orain festa feminista gehienetan reggaetoi dantzatzen da. Are, festa feminista erradikaletan reggaetoiak da gehien dantzatzen den musika-estiloetako bat.

Eta reggaetoiaren ohiko eszenan jo al duzu inoiz?

Huts-hutsean reggaetoiarenak diren espazioetan ez dut sekula jo, ez. Paradoxikoa da. Egia esan izugarri gustatuko litzaidake horrelako toki batean aritzea, baina iruditzen zait nik egiten dudanak hautsak harrotuko lituzkeela

oraindik ere horrelako tokietan, beraz ikusiko dugu. Reggaetoiaren eszena, 2013an, aparteko mundutxo bat zen, eta halakoxea da oraindik ere; lotuago dago logika *mainstream*arekin.

**Estilo honi kritikatzeko zaion gauzetako bat da musikaren aldetik eskasa dela. Zeure diskoa askotarikoa da hala ere. Zer aldatu da lehen abesti hura sortu zenue-
netik?**

Reggaetoi asko entzuten dut, eta aztertzen dudanean zer-nolako gauzak egiten dituzten ekoizleek, ikusten dut bila eta bila dabilatzala. Hasi nintze-nean, gauza zaila eta konplexua iruditu zitzaidan. Gainera, digitalki ekoizteko bide horrek zabaltzen dizkizun aukerak ez dira sekula agortzen. Musika estilo orotan ikertu daiteke asko, baina zentzu horretan, reggaetoiak ez da rocka baino gutxiago, kontua da ea zenbateraino landu nahi duen berea musikari bakoitzak. Nik neuk soinuak ikertu nahi nituen, bestelako erritmoak txertatu... Ez nuen nahi halako reggaetoi-formula bat topatu, eta gero abestiak katean ekoitzi.

Hainbat kantutan oso modu esplizituan agertzen dira lesbianen arteko sexu-harremanak. Zeure musikaren helburuetako bat zen lesbianak ikusgarri egitea, eta iruditzen zait bereziki sexuaren eremu hori ekarri duzula lehen lerrora.

Hain justu ere, horixe zen proiektuaren oinarrietako bat. Nik garai hartan, emakumeen arteko sexuari buruzko oso gauza gutxi ikusten nuen telebistan-eta. Gainera, emakumeen arteko sexuaz hitz egiten zen bakoitzean aipatzen zen halako gauza zerutiar bat, zera, bi aingeruk topo egin balute bezala han nonbait... Ez zeukan inongo loturarik haragiarekin. Gero, bazegoen beste iruditegi bat, pornoan ohikoa dena, gizon heteroen begiradari zuzendua. Iruditzen zitzaidan ez zutela errealitate islatzen, ez bata, ez besteak. Hor-taz, nire asmoa zen emakumeen arteko sexua bere horretan erakustea.

Eta propaganda apur bat egin nahi nuen, noski! (Barreak). Azken batean, mundu honetan, jaiotzen zarenez geroztik hartzen zaituzte heterosexual-tzat, eta saldu egin behar dira bestelako sexualitateak, jendeak jakin dezan aukera hori badagoela eta ondo dagoela, ez dela arazo bat eta geroztuko duzula.

» “Reggaetoiari egozten zaizkion diskurtsoen gainetik, nire iritziz, espazio batzuetan lotsa handia zegoen dantzatzeko”

» “Estilo hau ez da rocka baino gutxiago, kontua da ea zenbateraino lantzen duen berea musikari bakoitzak”

» “Emakumeen arteko sexuaz aritzean irudi zerutiarra edo pornografikoa ikusten nituen; nire asmoa bere horretan erakustea da”

***Bien bow* abestiak jatorri berezi samarra du, ezta?**

Reggaetoiako kantu ia denetan erabiltzen da *denbow* izeneko erritmo bat. Sorburuan dance estiloko erritmo bat zen, baina Shabba Ranks musikari ja-maikarraren kantu bati zor dio izena eta ospea. Kontua da kantu hori oso-oso homofobia dela. Ingeleseko *bow* hitzak makurtu esan nahi du eta kasu honetan harreman homosexuali egiten die erreferentzia. Kantuak haxe zioen: “Gona daraman gizona bow da, beste emakume bati begiratzen dion emakumea bow da, altxa eskua ez bazara bow”, eta abar. Gero, gaztelaniazko bertsioak egin zituzten Nando Bum eta El General musikariek, reggaetoiaren aitzindariak biak. Nando Bumena oso esplizitua zen, El Generalena apur bat lausagoa, baina jatorrizkoaren me-

zua gordetzen zuten biek eta sekulako arrakasta bildu zuten.

Eta zuk buelta handi bat eman diozu...

Bai, asmoa zen kantuaren *remake* bat egitea, erantzun gisa; iraina neuretzat hartu dut, eta esan: bai, bow naiz, oso bow, eta harro nago.

Kantu horretan bertan, beste haxe diozu: “Oso bow gara, homosexualak, mari-txuak, bollerak, bisexualak, intersex eta transexualak; denetarikoa gara salbu eta neoliberalak”.

Esaldi hori egoera berezi batean sortu zen. Azken hauteskundeetan ataritan geunden, orain Macri ultra-eskuindarra daukagu gobernuan, eta kanpaina handia egin genuen hori gerta ez zedin. Ekitaldi handi-handi bat antolatua genuen, baina bertan behera geratu zen euriaren ondorioz, beraz plaza batean bildu ginen kantari guztiak, eta *free style*-an aritu ginen. Nik feminismoaren eta aniztasunaren alorra ordezkatzeko nuen, beste kantari batzuek beste aldarrikapen batzuk zeuzkaten, baina denok gentozen bat: ez genuen nahi eskuinak irabazterik Argentinako hauteskundeak. Testuinguru zehatz horretan sortu zen ideia, baina eskuina mehatxuka dabilen edozein egoeratar ekar daiteke.

Askotarikoak garelako diozu *Bien bow* abestian, eta askotarikotasun hori haragi bihurtu duzu *Como me gusta a mí* kantuaren bideoklippean.

Lesbianismoa eta horren barruko aniztasuna ospatzeko asmoz sortu nuen *Como me gusta a mí*: hementxe gaude, haxe gara, eta jakin dezala mundu guztiak. Azken batean, historikoki, kontrakoa egin da: gure kolektiboa isilarazi.

Bestalde, bideoa grabatzea gauza ederra izan zen. Badago talde bat, El Tortazo izeneko, eta hortxe gaude Buenos Aireseko lesbiana guztiak eta esango nuke beste hiri batzuetako zenbait ere. Argazki erotikoak eta halako gauzak konpartitzen ditugu talde horretan, eta hantxe bertan bota nuen bideoklip bat grabatu nahi genuela eta ea inork etorri nahi zuen. Itzela izan zen, zeren berehala esan zidaten mor-do batek baietz: ez zen inongo hautape-nik edo halakorik egin, beraz emaitza benetakoa da, gure kolektiboan dagoen aniztasun errearen isla. ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Pozak eta negarrak



Xabier Etxaniz Erle



Eskularru beltzak

JASONE OSORO

Elkar, 2017
159 orrialde

Jasone Osorok Jara eta Ezekielen ondoren Beire aurkezten digu lan honetan, bera baitugu *Eskularru beltzak* liburu honen protagonista; bilduma berri bati hasiera ematen dion lehen lana (ez dugu ahaztu behar bilduma bat izateak irakurlea harrapatzeko eta lan berrietara hurbiltzeko bidea errazten duela).

Hamabost-hamazazpi urte bitarteko gazteak dira liburu honetako protagonistak eta Joseviskyk ilustrazioetan erakutsitako estetika eta estiloa ikusita nerabeei zuzendutako bilduma dela esango genuke. Hasiera, gainera, oso zinematografikoa da, bat-batean irakurlearen interesa eta jakin-mina pizten duena: “Larruzko txupa kendu zuen. Zutik jarri zen eta, platera bere burutik behera bota ondoren, kamiseta tiranteduna beltza zopaz blai geratu zitzaion. Isiltasuna jangelan”.

Horrela jokatzen duena Beire dugu, gurasoek –bere nahiaren kontra– ingeles barnetegia batera bidali dutena uda igarotzera (eta ingelesezko aipuak hasieran nabarmenak diren arren, gero desagertu egiten dira). Narratzailearen fokua batik bat Beirerengan dago kokatuta. Hark zer sentitzen, pentsatzen eta egiten duen erakusten digu, baita neskaren amorru sentimenduak ere nola plazaratzen diren. Orriek aurrera egin ahala, baina, barnetegiko beste pertsonaia batzuk ageriko dira (oso gutxi eta gehienak azaletik), bai eta kanpoko mutil erdi misteriotsu erdi interesgarri bat: Baba. Mutikoak, boxearen bidez lortzen du sufritzen duen egoera larriaren aurrean oreka (ama gabe, aita alkoholikoa eta bera harrera zentro batean bizitzen); eta horretan lagunduko dio Beireri.

Liburuaren lehen zatia Baba eta Beireren arteko harreman hausturarekin amaitzen da; Beirek boxeo konbatea galduta eta Baba konbatean agertu barik. Eta horixe izan zitekeen liburuaren amaiera, baina bigarren zati bat ere bada, ikasturte hasierarena. Eta hara, kasualitatea, Baba Beireren eskola eta klase berean agertuko da. Hemen, aste batzuk lehenago lagunak zirenak etsai moduan agertuko zaizkigu. Barnetegian mutilaren babesa behar zuena, lur jota zegoena... eskolakako erregina gisa azaltzen da. Sua taldearen burua eta denek miresten edo beldurra dioten neska.

Ziur nago Jasone Osororen aurreko liburuetako abenturak eta gazteen arteko harremanen inguruko pasadizoekin disfrutatu zutenek gozatu egingo dutela liburu honekin ere. Idazkera bizian, ikuspuntu ezberdinak ongi josiz, Osorok irakurketa atsegina lortu du. Irakurlea harrapatzen duen testua eta gizakion jokabideen inguruan gogoetara eramango gaituena ageri diren pertsonaiak direla eta (neska totela, bullyinga egiten dutenak, besteen atzean ezkutatzen direnak...). Gaur egungo gazteen eguneroko abenturak eta desbenturak, pozak eta negarrak. ■



Jasone Osoro Igartua
idazlea
(Elgoibar, 1971).

» TELEGRAMA


Ezin izan zenuela **Guns n' Roses** San Mamesen ikusi? Tira, bada pentsatzen duenik ez zenuela gauza handirik galdu. Baina Axl Rose eta konpainiaren fan hutsa bazara, Irungo Tunk! aretoan **Appetite for Illusion** tributu-taldea ikus dezakezu uztailaren 15ean **STOP Ander Lipus** eta **Patricia Urrutia** taula gainean Victoria Eugeniean. Noiz? Uztailak 15. **Hozkailua** du izena Huts teatroaren azken lanak **STOP Alexander Duncan** artista britainiar gaztea da eta haren lanak ikusgai daude hilabete bukaeraino Bilboko Aldama Fabre Galleryn. Zer den benetakoa eta zer ez auzitan jarri nahi du **Blow In** erakusketaren bidez **STOP**

» KONTZERTUA

Pop librea



Joxi Ubeda



21'44''

OSO FAN

Autoekoizpena, 2017

Oso Fan taldeak bere lehen diskoa kaleratu du jadanik. Disko polita, gustura entzuten dena. Kantuetan pop kutsuko melodiak entzun daitezke, gozoak, eta folk ukituren bat ere antzeman daiteke. Doinu atseginak dira, eta malenkonia apur bat transmititzen dute.

Kantuetan eguneroko kontu txikiez eta ez hain txikiez mintzo dira, zorroztasunez eta gatz pixka batekin. “Gaur berandutzen hasi da, zin dagizut bihar hasiko naizela agindutakoa egiten, dena ondo egiten”, *Gaur lehen* singlean dioten moduan.

Giorgio Bassmatti abeslari eta gitarra donostiarra eta Oriol Flores Donostian bizi den bateria jotzaile katalana dira Oso Fan taldeko kideak. Giorgio Bassmattik bere ahotsa du, bere kantatzeko modua, leuna, apala, eta barruraino heltzen dena.

Oriol Flores bateria jotzaile handia da eta ederki aritzen da kantuetan, melodiei erritmoa jartzen eta doinuak osatzen.

Biak ala biak ez dira hasiberriak. Bassmattik lehenago *Melodías concertantes* (2014) eta *Aproposito* (2010) diskoak kaleratu ditu Jon Bidaurre-

kin, eta *Kafea eta galletak* (2009) diskoa ere egin du. Halaber, Donut taldearekin *Allesque Boutade* (1996) EPa egin zuen. Donut taldean Jon Bidaurrekin berarekin eta Ivan Zabalegirekin (Lisabo, Nire) aritzen zen. Oriol Flores musika irakaslea da. Triz3ps, Sortuko dira besteak, Gozategi, Iker Lauroba, Charlie and the Colours, Amor de Tokyo, Izaro eta beste hainbat taldetan jo du, eta disko batzuk grabatu ditu talde horiekin.

Oso Fan taldearen diskoa jendaurreko emanaldietan eta www.bassmatti.com webgunearen bidez soilik eskura daiteke. Berako MIK estudioan egin dute grabazioa, Xabier Erkiziarekin. Grabazioaz eta ekoizpenaz arduratu da Xabier Erkizia, eta diskoa osatzeko garaian beste bi lagun ere aritu dira: Arrate Garcia (koruak eta txindatak) eta Pilar Aguilar (azala).

Oso Fan taldea bere ibilbidea egin ari da, eta gero eta ezagunagoa da. 2016ko Gure Bazterrak musika taldeen lehiaketa irabazi zuen. Taldekideen hitzetan, saria pizgarri eder bat izan da musika egiten segitzeko: “Kriston ilusioa egin digu horrelako aipamena jasotzek, gure pop librea egiten jarraitzeko”.

Hainbat emanaldi egin dituzte orain arte. Besteak beste, Bilboko eta Durangoko Kafe Antzokietan, Iruñeko La Zentral aretoan, Azpeitiko San Agustin kulturean, Zarauzko Modelo aretoan, Urretxuko Kalegorrian musika zikloan, Japonian, eta aurrerantzean ere han eta hemen jotzen ikusiko ditugu. ■



Oriol Flores eta Giorgio Bassmatti dira Oso Fan taldeko kideak.

Bagenekien zertara eta zergatik



Willis Drumond Errekaleorren jotzen.



Jon Aranburu Artano
@jonaranburu

ERREKALEOR

Elkartasun uholdean egin den kontzertu sorta.

Asteotan ikusi dugu: Eguraldi maku-rra zetorrela eta, azken momentuan –eta eztabaida luzeen ostean, ziur– EHZ jaialdiaren antolatzaileek bertan behera utzi behar izan dute urte guztian mimoz prestatzen aritutako jaialdia; erantzuna, elkartasun erauntsia herri, hiri eta beste hainbat txokotan.

Halako zerbait pasa zaigu Gasteizen maiatzaren erdi aldetik aurrera: alkat-reak, gau txar bat pasa ostean-edo, goiz euritsu batez ertzainek babestutako Iberdrolako langileak bidali zituen Errekaleorreko auzokideei argindarra kentzera. Hortik aurrerakoak badakizkizue. Eta honek ere, noski, sortu du beste elkartasun uholde bat.

Argindarra kentzera joan zitzaizkienetik Errekaleorreko biztanleek hainbat elkartasunezko bisitari izan dituzte, tartean gure inguruko talderik esanguratsuenetako asko: Joseba B. Lenoir, Anari, Berri Txarrak, Willis Drummond, Izaki Gardenak, Harresian Zulo... Hartuko luke Udalak halako kartela berehala

izango diren Gasteizko jaietarako. Baina, zorionez, bada oraindik talonarioei irabazteko gai denik. Ezin da diruz antolatu hain denbora gutxian halako kontzertu sortarik, eta ekainean, gainera. Eta argindarrik gabe, noski!

Baina zergatik jotzen da aldarrikapen momentu hauetan zuzeneko emanaldiak antolatzen? Taula gainetik kantu eskaintzan aritzeak, zer eragiten dio entzuleari? Eta musika-taldeek ere zergatik jo nahi izaten dute halako gogoz? Behin entzun nion lagun bati taula gainera igozteak ere zerbait politikoa zela. Nola, non, zertara, zergatik, noren aurrean, zenbat aldiz, zenbat denboraz... Galderak erantzun behar dira, erabakiak hartu. Eta erabaki horietakoren bat uztarritik ateratzen denean, mugitzen da zerbait.

Errekaleorren ikusi ditugun emanaldietan ez ohiko erantzun batzuk eman zaizkie galdera horiei: Willis Drummond astelehen buruzuri batez ikustea, sarrera doan zela; Anari pozez entzutea kantuan hasterako, musikan aritzeak

halako auzoak ezagutzeko eman dion aukeragatik; edo Berri Txarrak manifestazio baten amaiera ekitaldian jo eta su; edota Izaki Gardenak, atsedenean behar lukeenean, inoiz baino indartsuago.


Entzulerik gabe, ordea, ez dago ezer. Musikariek egiten dituzten galdera berdinak egin behar izaten ditugu geuk ere, askotan modu inkontzientean. Aditza bera ere bada politikoa, noski, beraz. Joaterako, denok genekien zertara gindoa-zen; hura ez zen eman eta hartu hutsa.

Zertara eta zergatik ziren batzuek eta besteok erantzun genituen galderak. Eta denok ere erantzun bera izateak eragin zuen halako indar estatiko bat, agintekiaz kendutako argindarra bueltatze-rainokoa ia.

Beldurra izaten da, halakoetan, bertaratzearen zergatia ez ote den lausotuko, emanaldiak berak sortutako euforiak ez ote duen bestea estaliko. Kasu honetan, ordea, espero dezagun –hala nahiko nuke– errekek egingo duela bere bidea, bide luzea. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Doan egiten dena. Izotza. 2. Abereei lepoan jartzen zaien eragozgarri. Ardien bazkaleku. 3. Neurtzeko era. 4. Atsegin, fin. 5. Hatza. Oskigile. 6. Erloju, ordulari. Bedeinkatu. 7. ... egon, denbora tarte batez arrakasta izan. Loraketa, loraldi. 8. **Argazkiko mendilerroa**. Altxatzen.

Goitik behera:

1. Hareazko muinoa. Dimako auzoa (Bizkaia). 2. Hauts eginiko gai gotor bati isurkari bat erantsiz egiten den nahastura trinko. Erori aditzaren infinitiboa. 3. Pintura arina. 4. Aita Santua hautatzen duten Elizako goi kargudun bakoitza. 5. Suari dariona. Dago. 6. Bost gehi bat. Presio-unitate. 7. Ipintzen. 8. Esanarazi. 9. Gauero egin ohi dugu. Upa, barrika. 10. Itxarote. Konforme. 11. Jaurtiketa. 12. Berehala (alderantziz). 13. Sodio kloruroa. 14. Iltze. 15. Neukan.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Gorantz zuzen

Su eman

Baba

Isurkari mingots

Oinaren azpia

Bataiarri

Loreen hauts

Etorki bikaineko

Hosto ihartuen multzo

Etxe baten lur-eremu

Aldarte

Zuhaitz mota

Umegai, enbrioi

ZUTIK

UMEKI

Sudokua

Erraza

		7	6		1			9
	5				3			6
	6				8	5	3	2
				7				8
5								1
9				6				
7	4	1	8				5	
8			5				1	
3			4		9	6		

Zaila

			8	9			5	
2				5			3	
	8	1			7	6		
						9	8	
				3				
3	4							
		8	5			7	2	
7			6					1
2			4	3				

Ebazpenak

"Alferra, lanean hasi aintzinean nekua"

ESABERA ZAHARRA

Umeki
Okume
Umore
Orube
Orbel
Noble
Polen
Ponte
Olinpe
Ozpin
Pintz
Platu
Zutik

ANAGRAMAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9
4	7	5	2	6	8	3	9	1
3	6	8	5	1	9	7	2	4
9	3	4	7	8	1	2	7	5
8	5	7	9	3	2	4	1	6
6	1	2	4	7	5	6	8	3
5	8	1	3	2	7	6	4	9
2	9	6	1	5	4	8	3	7
7	4	3	8	9	6	1	5	2

Zaila

3	2	5	4	1	9	6	8	7
8	9	6	5	3	7	2	1	4
7	4	1	8	2	6	9	5	3
9	8	3	1	6	4	7	2	5
5	7	4	9	8	2	3	6	1
6	1	2	3	7	5	4	9	8
1	6	9	7	4	8	5	3	2
4	5	8	2	9	3	1	7	6
2	3	7	6	5	1	8	4	9

Erraza

14. Ite. 15. Nuen.

9. Lo, Upela. 10. Aio, Ados. 11. Tiro. 12. Akat. 13. Gatz.

4. Kardinal. 5. Kea, Da. 6. Sei, Bar. 7. jartzen. 8. Erasan.

Goitik behera: 1. Duna, Oba. 2. Ore, Eror. 3. Akiarela.

Benedikatu. 7. Boladan, Loratze. 8. Aralar, jasotzen.

3. Neurtzera. 4. Adetsu. 5. Eria, Zapatagin. 6. Oren.

Ezker-eskuin: 1. Doako, Jela. 2. Urka, Saroi.

Rosa Binimelis. Ekologia, ekonomia, etika



XABIER UBEDA

Sastraka inbaditzaile bat agertu da Nafarroa, Aragoi eta Kataluniako artasoroetan. Teosintea, “teosintle” nahuatl hizkuntzan, *Zea* familiako landarea da, artoaren senidea beraz. Rosa Binimelis (Castelló, 1979) ingurumen zientzietan doktorea da, eta azken urteotan teosintez ikertzen aritu da. Sastrakak lurralde ugari okupatu du, baina orain arte galderak erantzunak baino gehiago direla dio ikerlariak.

“Teosinteak kalte handiak eragin ditu Aragoi eta Katalunian; Nafarroan ezjakintasuna da nagusi”



Hegoi Belategi
@BelategiH

Transgenikoen inpaktuez kezka

“Kataluniako Unibertsitate Zentralean doktore eta ikertzailea naiz, Vic-eko campusean. Ekonomia ekologikoa eta ingurumen-gatazkak ditut aztergai eta elikadura burujabetzan sinisten dut, garapen sozial eta ekonomikorako bide gisa. 2005etik transgenikoen inpaktu sozioekonomiko eta etikoak ikertzen jardun dut. Besteak beste Argentinan eta Uruguain izan naiz ondorioak zeintzuk diren ezagutzeko. Azken bi urteak teosintearen ikerkuntzan murgilduta eman ditut, hainbat laborariren abisuari jarraiki”.

Zer da teosintea eta zergatik da hain arriskutsua hedatzea?

Artoaren arbaso basatia da. Mexiko eta Ertamerikan du jatorria eta han, oraindik ere, artasoroetan haztea ohikoa da. Espainiako Estatuan ordea ez; 2009an Aragoiko hainbat laborarik artoaren antzeko landarea atzeman zuten beren artasoroetan. 2014an teosintea zela baieztatu zuten Aragoi eta Kataluniako gobernuek. Mexikon ez bezala, teosinteak kalte ekonomiko handiak eragin ditu bi erkidego horietan. Ez dakigu zergatik, baina teosintea oso azkar zabaltzen ari da artasoroetan, eta horrek bi espezieen arteko hibridazioa sustatu du. Ondorioz, produkzioa nabarmen murriztu da hainbat eskualdetan. Zorionez hibridazioa teosintetik artora ematen da gehienbat, eta ez alderantziz, hau da, landare gehienak emankorrek dira oraindik. Gainera, orain arte ez da arto transgenikoarekiko nahasketarik eman. Gure landare endemiko bat gene transgenikoekin nahastea eta landare horrekiko kontrola galtzea oso arazo larria litzateke.

Zeintzuk izan daitezke hibridazio horren ondorioak laborantzarako?

Orain arte bi landareen arteko nahasketa gertatu da soilik. Baina nahastutako landare horiek teosintearakin hibridatzeko zubia izan daitezke. Hau da, artasoroak kutsa ditzake, baita transgenikoak ere. Aragoi eta Kataluniako arto transgenikoa intsektizida izateko sortu da. Teosintearekin nahastuz gero, kontrolik gabe hedatzen ari den landare inbaditzailea sendotuko litzateke. Uste dugu teosintea ez dela arto transgenikoekin nahastu, baina ez da ikerketa seriorik egin.

Teosintea Amerikan jatorria izanda, nolaz iritsi da Atlantikoaren beste aldera?

Egia esan, ez dakigu. Oso gutxi ikertu da teosintez, hemengoa Nikaragua, Guatemala edo Mexikoko espeziearen familia-koa ote den ere ez dakigu. Hainbat teoria dago. Hazi sorta baten bitartez iritsi zela diote batzuek. Hainbat nekazarik aitortu digute hazi-enpresa baten soroetan teosintea atzeman zutela. Hala izan balitz,



Hazkundearen lehen faseetan artoa eta teosintea oso antzekoak dira, eta horrek asko zailtzen du espezie inbaditzailea identifikatzea.

ROSA BINIMELISEK UTZIA

arduragabekeria larria zatekeen, espezie inbaditzailea hedatzen lagunduko zuketelako. Dena den, enpresek beti ukatu dute eta ez dago frogatzeko modurik.

Ba al dakizu zein den egoera Nafarroan?

Nafarroari dagokionez ezjakintasuna da nagusi teosintearen inguruan. Espainia-ko Arto Hazi Ekoizleen Elkarteak ohar bat publikatu zuen Nafarroan teosintea hedatzen ari zela esanez. Horrez gain, guk ez dugu beste informaziorik jaso. Aragoi eta Katalunian ez bezala, Nafarroako Foru Gobernuak ez du sastraka horren jarraipenik egin, guk behintzat ez dugu aurkitu. Ez dakigu zein eskualdetan agertu den, ezta zenbat hektarea kalte-tu duen ere. Nafarroako Gobernuaren ardura da nekazariei teosintearen berri ematea, haiek neurriak hartu ditzaten landarea ez barreiatzeko. Gobernuaren parte-hartzerik gabe nekez gelditu daiteke hedapena. Aragoiko Gobernuak hiru urterako debekatu du artoa landatzea teosinteak kaltetu dituen soroetan.

2009an agertu zen teosintea. Zergatik behar izan dute hain denbora luzea bote-re publikoek eta ekoizleek plagaren berri emateko?

Gaztea denean, teosintea identifikatzea nahiko zaila da. Hasieran basartoa zela uste zuten. Teosintea Amerikako landarea denez, ekoizleek ez zuten espero hura hemen agertzea. Dena dela, galdera horri haiek erantzun beharko liokete.

Teosintea kontrolik gabe zabaltzeko arriskua dagoela uste duzu?

Iberiar penintsulan agertu den espeziea guztiz inbaditzailea da. Ikuspegi biologotik oso landare emankorra da, hazi gogorrak ematen ditu eta ekosistema mota bat baino gehiagora egokitzeko gaitasuna du. Egungo nekazaritza intentsiboak, gainera, ez du laguntzen. Monolaborantza eta errotaziorik gabeko nekazaritza landare inbaditzaileen paradisua dira. Teosintea kontrolatzeko eraginkortasuna hartuko diren neurrien araberakoa izango da.

Aragoiko hainbat eskualdetan artoa landatzea debekatu dutela aipatu duzu. Zer beste neurri har daiteke?

Orain arte proposatutako hainbat neurri pestizidekin dute zerikusia. Baina pestizidak ez dira irtenbiderik egokiena; hasteko, artasoroetan erabiltzeak pertsonen osasunerako izan ditzakeen ondorioengatik. Bestalde, jakin badakigu landare inbaditzaileek herbizidekiko erresistentzia garatu dezaketela. Soroen jarraipena funtsezkoa da. Teosintea lehen faseetan identifikatuko balitz, haren hedapena errazago mugatuko litzateke. Ekosistema heterogeneoak sustatzeak ere, hau da, kultibo ezberdinak landatzeak, teosintea ugaltzeko baldintzak murriztuko litzuke. Traktore eta makinak zainketa garrantzitsua da halaber. Nekazari eta abeltzainek maiz partekatzen dituzte makinak, eta modu horretan haziak soro batetik bestera barreiatzen dira. Ezinbestekoa da, beraz, instituzioen eta nekazarien parte-hartzea teosintea kontrolatu ahal izateko. ■



Mañukorta euskalki bat da bere horretan, Koldo Zuazoren arabera

“Gregorio Larrañaga *Mañukorta*-rena ez da teknikoki Mendebaldeko Euskalkia, berezko dialektoa baizik”, azaldu du Koldo Zuazo hizkuntzalari eta EHUKo irakasleak. *Mañukortera: euskal dialektologiaren azken erronka* liburu berria argitaratu du Zuazok eta lan horren aurkezpenean egin ditu adierazpen polemiko hauek. Zuazoren ustez, bertsolari bizkaitararen hizkeran badaude elementuak zuzenean konektatzen dutenak Mendebaldeko Euskalkiaren sorburuarekin, alegia, Arabarekin. “Ikertzen hasi nintzenean begi-bistakoa iruditu zitzaidan hori proto-bizkaiera moduko bat zela, fenomeno erabat bakana gurean”,



Mañukorta eta Amuriza, euskara batuaren bigarren jaiotzari buruzko informazioa elkartrukutzen.

azaldu du Zuazok. Gaineratu duenez, inoiz ez du hain ondo pasa ikertzen ari den hiztun batekin.

SAREAN ARRANTZATUA

Zezenak larrean eta behiak txistorretan sanferminetan



Lanen gatik eragosita gaude



Entzierroetan zezenak *Diario de Navarra*-rekin jotzea debekatzeko eskatu dute, tratu ankerra delakoan

Zenbait talde animalistak irmoki gaitzetsi dute sanferminetako entzierroetan zezenak xaxatzeko *Diario de Navarra* erabiltzea. “Paragrafo bakoitzean Aldaketaren Indarren aurkako gezi bat du egunkari horrek; abere gizajoe sekulako mina hartzen dute pozoidun dardook beren larruan jotzean”, argitu digu Unai Abereain ekintzaileak, “guztiz zezengabea da”.

“Entzierroen aurka gaude”, gaineratu du Abareainek, “baina egitea beste erremediorik ez badago, mesedez, animalia jotzeko erabil dezatela Gara bederen; Udalarari ematen dioten koipeari esker askoz leunagoak dira kolpeak”. Zezenen iritzia jasotzen saiatu da Beranduegi, baina haien kortara bidali dugun bekaduna ez da oraindik bueltatu eta ez dakigu ba. Bestalde, zezenen aurkako



Gutxiagatik ez zen gola izan.

irainak euskaraz izan daitezten potroko-loa ia prest dagoela esan digute udaleko iturriek, eta ura ematen digute gainera.



**INDARTU
DEZAGUN
INDARTZEN
GAITUENA**

Egin ARGIAkoa!

**Eman eta jaso
nahi duzun neurrian**

argia.eus/eginargiakoa



STM

San Telmo Museoa

Erakusketa:

Telefónica

FUNDACIÓN

HITCHCOCK

Hitchcock, suspensetik harago

2017-6-16 // 2017-10-1

Erakusketa

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza 1, 20003 Donostia

#STMhitchcock

www.santelmomuseoa.eus

 **donostia**
kultura

 **DONOSTIA**
SAN SEBASTIÁN

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
EUSKO LEHIAKORTZA
PUBLIKO GILAK
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y LENGUAJES

 **Gipuzkoako**
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes



 **ORAIN**
KULTURA

 **eitb**

 **kutxa**

 **EL DIARIO VASCO**